




ttipi-ttapa



MODA gehigarria / 27

Babes Ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko hitzarmena sinatu dute Beran / 11



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroetako mendi maratoi erdia apirilaren 22an eginen dute / 36



UTZITAKO ARGAZKIA

Banasa San Juan: Ford Focus Kopan piloto gisa ariko den lehen emakumea / 42

Bederatzi taldek parte hartuko dute Baztan-Errekako 39. Laxoa Txapelketan / 43

SINADURAK



JON
ABRIL / 3



AITOR
AROTZENA / 3



PELLO
APEZTEXEAA / 4




**40. NAFARROAREN EGUNA
APIRILAREN 29AN BAIGORRIN**

Urteurrenaren kariatara, bezperan musikaldi berezia antolatu du Basaizea Kultur Batasunak / 38

JUAN MARI ONDIKOL

Eraikinen iraupena xede

50 urte dituzten etxebizitza kolektiboek Eraikinak Ebaluatzeko Txostena behar dute / 8



APIRILAK 28
LARUNBATA

ATE IREKIERA 22:30



AITZINETIK: 15€
LEIHATILAN: 18€

Elizondo: Mendi ostatua, Intza ostatua
Doneztebe: Titi ostatua
Bera: Errekalde ostatua
ONLINE: www.luraretoa.com



LUR
ARETOA



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

www.kateabike.com

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com

ETORRI ETA SOLASTUKO GARA



ORBEA

CONDA

MERIDA

SCOTT

BH

TREK




NIRE TXANDA

JON ABRIL

121

Egunero errepiderat atera behar dugunontzat zenbaki madarikatua da 121a. Bidaso bazterrak gurutzatzen dituen errepidea ezaguna da gure mugetatik kanpo ere. Orain hamar bat urte bide berria estreinatu eta gaitz guztiak konponduko zirela saldu ziguten, baina, bakan batzuek neurri gehiago eskatu genituen, bidea ez zegoelakotz prestatua nazioarteko garraiorako, eta puntu beltz franko gelditzen zirelakotz konpondu gabe; tartean, Bera eta Sunbillako saihebidak. Geroztik zientoka kamioi gehiago dabil gure bazterretan, arrisku aisa handiagoa sortuz. Belateko tunelak itxi eta kamioiak portutik bidaliko dituzte zazpi hilabetez. Kamioiak bertze errepide batzuetatik desbideratzea eskatu dute inguruko ia alkate denek. Gutieneko neurria behar lukeenari entzungor egin dio Nafarroako Gobernuak. Eta ezin dut ulertu. Nonbait, garraiolari eta gasolindegien lobbyak herritarrek baino indar eta balio gehiago dute, bertzela, nekez uler baitaiteke 3.500 kamioi egunero Belateko maldetan sartzea.

**«SEGURTASUNAGATIK
BIDAL DITZATELA
KAMIOIAK BERTZE
BIDE BATZUETATIK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

Gora kurrin-kurrinkulumak!

Edozein herritako karririk garbitzeko duela 30 urte ateratako EGA tituluaren eta oraindik lehenago eskuratutako Eskola Graduatuaren fotokopiak aurkeztu ditut. Baina, kasualitatea, joan den hilabetean egindako erreka bazterretako faunaren inguruko masterraren ziurtagiririk ezin inon topatu, ezta unibertsitatean ere. Informatikaren garaiaren ajek!

NABARMENTZEKOAK



XABIER
ERRO
HILBERRIA



OLAIA
URRUTIA
INGENIARIA

1980an Everest gailurrera ailegatu zen euskal espedizio historikoko kideetako bat izan zen Xabier Erro lesakarra. 72 urterekin martxoaren 26an hil zen Hondarribiko bere etxean.

Saldiasko Olaia Urrutia agronomia-ingeniariak tesia aurkeztu berri du. Bertan, bildots haragi osasuntsua lortzeko bildotsen dietan litiaki edota itsas-algak txertatzeak dakartzan onurak ikusarazi ditu.



ATZERA BEGIRA

2008-05-01 · TTIPI-TTAPA · 469 zk.

Baztangoa gasna markaren sorrera

1977an hasi zituen Baztandarra Kooperatibak harat honatak eta 2007an gasnategia eraiki zuten. Urtebete beranduago, 2008an, Baztangoa gazta merkaturatu zuten. Ordura arte, Xabi Ripa zen Baztandarra Kooperatibako kudeatzailea eta berak Ttipi-Ttapari erran zionez, «helburuak Baztango nekazaritza mantendu eta kalitateko gazta egitea» ziren. Gaztaren ezaugarriez ere aritu zen: «%100ean Baztango ardi latxaren esnearekin egina da, modu tradizionalan, inolako tratamendu termikorik gabe. Ez du ez kontserbatzailerik, ez eta koloratzailerik ere». Bertze produktu batzuk komertzializatzeko ideia bazutela ere adierazi zuten, esnearekin egindakoak edo haragi landuz egindakoak.



erran.
eus
Mendialdeko Abistetak



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larraide, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Ixaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztexea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua **Gobierno
de Navarra**



Bortzietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua





KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA

Carmen, eta jendearen gaitasuna

Lagunarena etorri zait burura. Aspalditik eri, eta hondarraldian egun frankoz ospitaleratu, egoera motelari eragin nahi eta, tratamendu berria plantatu zion medikuak. Honek, hobetzeko aukera izaten ahal zuela errana zuen. Beteko zen sendagilearen ustea?

Bisitaldian nik egindako «zer moduz» galderari, «oraindik ez dakit botikaren eraginaren berri», erantzun zidan lagunak, «nahiz eta zerbait hobetuaren ustea badudan. Dena den, ez baitakit zenbaterako hobetzea izaten ahal den». Egun guti ziren, bai, tratamendu berriarekin hasi zenetik. Gero jakin nuenez, hilabete batzuen buruan argi hobetua ikusten omen zuen bere osasuna. Baina oraindik ere ez zekien hobetzearen muga jo zuen edo ez. Gehiagorako gai zen?

Horren antzeko gogoeta bururatu zitzaidan, *Carmen Etxalarkoa* pastorala ikusitakoan. Zenbaterako pentsatu izanen zuten, Etxalar bezalako herri batek gaintzen ahal zuela, ehun eta gehiago lagun ez profesionalak hiru orduko eta

erdiko antzerki ekitaldia, euskaraz, hain egoki betetzea?

**«GAUR EGUN,
JOERA BAKARKA
IBILTZEKO OTE
DEN IDURI DU»**

Bai, bai, egia, ordu aunitz jo dutela testua ikasten, kantuek eta tresna musikaldiak ensaiatzen, arropak eta bertze hainbat gauza prestatzen. Baina, berriz diot, zenbaterako

pentsatzen ote zuten, pentsatzen ote genuen, Pastoral hori bezalako ikuskizun polita etxalartar herritarrek eskaintzen ahal zigutela? Hagitz polita, bai, baina baita denbora eta zailtasun handiak gaintzea ere galdetzen duena. Herritarrak gogoratzean, Zuberoa, Baztan eta bertze lagun euskaldun batzuk ezin ditugu atzendu, beren borondate hutsezko laguntzagatik, pastoralaren egile eta zuzendariaren egite bereziaz aparte.

Bizitzan ausardia puxka bat izatea lagungarri bilakatzen ahal zaigu, zenbait momentutan uste baino ahaltsuago garelako ohar gaitzen; bakarka batzuetan, eta taldeka bertzetan. Zergatik sortu ote zen, eta gaur egun oraindik mantendu, jendea elkartu eta taldeka bizitzeko ohitura? Gure gaitasuna handitzeko, noski. Aunitz laguntza eta zerbitzuz gozatzea ezinezko izanen baikenuke, bertzela.

Dena den, hondarreko urteetan ikusten dugun joera, bakarka ibiltzeko ote den iduri du, eta kanpo aldera gehiago begiratzea. Lehen ez bezalako aukerak direlako, behar bada. Edo ez?.

ARANTXA GAMIO BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Banaketak II

0-6 URTE

- Gertatzen ari dena ulertzen ez badute ere giroko tentsioa sumatzen dute.
- Atxikimendua sortu eta eraikitzen den etapa honetan bi gurasoekin harremana bermatu behar da.
- Egozentrikoak dira eta uste dute gertatzen den oro beraiek egindakoagatik gertatzen dela, ardura edo kulpa sentimenduak kenduarazi behar zaizkie.
- Gurasoak elkartuko diren fantasia garatzen ahal dute.

6-12 URTE

- Egoeraren kontziente dira baina konflikto eta sentimenduen gestioan gabeziak dituzte; hizketaldiak mantendu elkarren sentimenduak, egoerak, fantasiak, kezka... konpartituz
- Gurasoei errua botatzeko joera izaten ahal dute.
- Ziurtasuna, afektua, egonkortasuna, mugak, errutinak, ardurak, ohiturak...

**«SEME-ALABAK
POSIZIONATZEA
HAGITZ
KALTEGARRIA DA»**

12-18 URTE

- Nerabezaroan gurasoetatik desberdintzen dira. Banaketaren egoera baliatu dezakete (xantaxia

egiteko, gurasoen inkoherentziak aprobetxatzeko, komunikazio eskasa...) beren nahiak lortzeko.

- Etxeko egoera berriak (bi etxe, egonaldiak...) kezka eragiten die. Beraiek epe luzera harremanak mantentzeko duten gaitasunaz duda egiten ahal dute.
- Emozioen gestioan lagundu, komunikazioa bermatu, arduretan oinarritutako heziketa eskaini... bi gurasoen presentzia eta gutxieneko adostasunak bermatuz.

Bikote haustura edo dibortzio kasuetan seme-alabentzat lagungarri izan ohi da:

- Hurrei adierazpen bide desberdina eskaini: egunerokoak, marrazkiak, dantza, ipuinak, gaia lantzen duten pelikulak... eta norbere emozioen adierazpen eta gestio egokiak eginez eredu izatea.
- Ikasle garaian: materialaren gainbegiratzea eta zaintza (bi etxe izatean materiala atzendu edo galtzea ohikoa izaten da).

Eta kaltegarriak dira:

- Haurrak posizionatzea, gurasoen artean aukeraketa eginaraztea, bertze gurasoarengatik gaizki erranka ibiltzea eta baten edo bertzearen aldeko jartzea, konfliktoetan presente egitea, gurasoen arteko lehia seme-alabak bereganatzeko, bertze gurasoarekin gutxieneko komunikazio eta adostasunik ez izatea.
- Seme-alaben sentimenduak nahierara moldatzea, exijentzia altuegiak egitea.

11 GALDERA LABUR

DAVID ALBIASU NARBARTEKO GAZTEA

«Antolatuz gero, dena egin ahal da»

Nor da David Albiasu?

Narbarteko gazte alai, kirolari, bihurri eta saltseroa. Saltsa guztietako perrexila naiz! (irriz) **Pilota astinduz ikusi izan zaitugu...**

Ttiki-ttikitatik gustatu izan zaidan kirola da pilota. Haurra nintzela, aitaxi eta osabak jokatzeko ikusten nituen eta nik ere beraiekin jokatu nahi izaten nuen... Badakizu, nolako zura, halako ezpala! Zortzi urte ingururekin, Txaruta klubean federatu nintzen.

Kirola afizio izatetik ofizio izatera bidean...

Halaxe da, betitik hagitx kirolaria izan naiz eta gustuko tokian aldaparik ez dagoelako Kirol Zientzien gradua ikasten hasi nintzen Huescan. Argi nuen kirolarekin loturiko zerbait ikasi nahi nuela. Laugarren ikasturtea dut aurtengoa.

Bestaz besta ere ibiltzen omen zara...

Bai, bereziki herri ttiketako giroa gustatzen zait eta aukera dudan guztietan inguruko herrietara joateko aprobetxatzen dut.

Barraren bertze aldean ere ikusi izan zaitugu...

Badakizu, batzuk bestan ibiltzeko bertzeek lan egin behar izaten dugu. Hori da bizi-legea! (irriz). Baina egia erran gustura aritzen naiz.

Nola uztartzen da hori guztia?

Norbere burua antolatuz, denetarako denbora atera daiteke... Nahiko ongi antolatzen naiz, baina batzuetan presaka ibiltzen naiz harat honat.

Hescan zaudela zer da faltan botatzen duzuna?

Hemengo euskal giroa, kultura, musika, lasaitasuna... Ho-



rrek ez du preziorik! Kanpora atera eta euskara ez aditzea ez da samurra.

Zer du Narbartek bertze herriek ez dutena?

Gazte kuadrilla ederra! Edozein bestara joateko gogoa duzunean bakarrik uzten ez zaituzten horietakoa (irriz). Hori baino hobetik ba al dago?

Zer falta zaio?

Falta... ez dakit falta ote zaion, baina frontoi edo kiroldegi

eder bat ez litzaiguke gaizki etorriko.

Asteburuko plan hobereana?

Herri giroaz, euskal musikaz, inguruko txokoez... gozatzea. Asteazkenean faltan botatzeko denbora hori asteburuetan egiten saiatzen naiz.

Amets bat?

Inguruko eta nire zoriontasunak denbora luzez irautearekin nahikoa dut, horrek zorionsu egiten nau.

GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKO ARGAZKIA

Bularreko minbiziaren aurka lanean



Bularreko minbiziaren aurkako borrokarekin bat egin zuten eratsundarrek martxoaren 29an. Minbizia hori ikertzen duen elkartearen alde, 1.200 euro bildu zituzten.

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA URTE OSOAN

okaNe

Kanttonberri 12 · BERA
T. /Fax: 948 630 018

HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com



IRAKURLEAK MINTZO

Isilaldi luzea

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Historiako gertaerek denongan, gehiago edo gutxiago adinaren arabera, jakin-mina sortzen dute.

Historia horien artean, interes berezia daukate geure bizitzan iraganak baldin badira, nahiz eta, sarritan, garrantzizkoak ez izan. Beste kasuetan, alderantziz, garrantzi handiko gertaerei ez diegu axolarik izaten, batez ere, gazte denboran. Gazteria iraganaz baino etorkizunaz gehiago interesatzen da. Beraien iragana laburra, motza da, eta etorkizuna, berriz, luze eta amets bezala. Halere, gazte, heldu edo zahar izan, denoi gustatzen zaigu bakoitzaren iraganeko kontuak azaltzea. Dena den, helduen iragana luzeagoa izanez, zer adierazi gehiago dute. Baina Espainiako Gerra Zibilarekin kontrako fenomeno gertatu zen. Bera sufritu, pairatu, nolabait protagonista izan zirenak itun sekretu orokor bat egin izan balute bezala, ez ziguten ezer kontatu. Beldurra izan zen nagusi, eta herritarrek atzera baino aurrera begiratzea nahiago izan zuten. Beste erabaki askok bezala, honek ere alde onak eta txarrak izan ditu. Askotan, atzerabiderik ez duena ahaztea bide egokiena izaten da, baina beste aldetik, iragana kontuan hartu behar dugula esaten da, ez errepikatzeko.

Zalantzarik ez duena gerra osteko isilaldi kulturala izan zen. Isilaldi honek kalte izugarria egin zion euskal kulturari, bera ia itotzera heldu arte. Baina kulturaren isilune luze hori ez zen herritarren erabakiaren ondorioa izan, Franco diktadorearen

errepresioarena baizik. Euskal kulturarekin lotuta zegoen dena debekatuta zegoen. Une horretan, eliztarren papera azpimarratu behar da. Ekintza kultural guztiak debekatuta zeudenean, elizaren inguruan arnas pixka bat hartzen zuen. Komentuetan beti zeuden euskaltzaleak, askotan bere kasa euskara lantzen zutenak, eta egoera horretan, beraien lanak erabakigarriak suertatu ziren euskal kultura ez desagertzeko. Berdin esan dezakegu herri askotako parroko eta

apaiz laguntzaileez. Sasoi hartan, Elizak indar handia zeukan, eta beste aldetik, frankistak ez ziren ausartzen bere kontra hainbeste egiten. Hala eta guztiz ere, ez ziren falta izan zigorrak eliztar askoren kontra. Isilaldia ez zen guztiz akabo diktadorearekin. Denok gogoratzen ditugu kultur mailan *Egin* eta *Egunkariaren* itxiera eskandalagarriak, besteak beste. Isilaldi luzearen itzalak gaurko herritarren eguneroko bizitzaraino iristen dira. Sarritan entzuten da lagunarteko solasaldietan, ez dutela politikaz hitz egin nahi. Politikak ez dauka izen onik politikari eurengeatik, batez ere. Baina, berez, politika gure eguneroko bizitzarekin lotuta dago, eta denon arduraren beharko luke. Ez hainbeste, bakoitzaren bizitzatik denboran urrun gertatutakoaz, baina bai geure garaikoaz. Isiltasunak ez du laguntzen gure arteko arazoak konpontzen. Alderantziz, bizitzako arlo guztietan, isiltasunak, sarritan, irtenbideak zaildu egiten ditu. Gure arteko eztabaidetan, garaiz ez hitz egiteak ondorio txarrak izaten ditu, eta politika ez da salbuespena. Isiltasuna dela eta, harridura sortzen digute Espainia aldeko politiko eta kazetariak zein jarrera desberdina duten ETaren garaiaz eta Franco diktadore eta bere aldeko jarraitzaileekin. Hauen ekintzak ahaztu egin behar direla esaten digute; iragan hori gogoratzea ez dela egokia. Baina iragan hori ahaztea egokia baldin bada, zergatik ez ETarena? Gaia eztabaidagarria da, baina ezin da ulertu batoren eta bestearen aurrean jarrera hain desberdina izatea, ezta beraiek erabakitzea ere zein garai ahaztu behar den eta zein ez.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probexu aukerak!



BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA

%5 DESKONTUA
pentsu
ekologikoetan

Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
GRUPOA

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisetan
%10 Irponta
zinetan
%5 Kopla, eskuadentzio eta
plastifikazioan 3€tik gora
*Aurrekontuak kanpo

Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

elika Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

INTZURI
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Feri Sari
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran
%10 DESKONTUA
firolina eta
penduloetan

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

KATEA
BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

kafetegoria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

LIRAIN
ESTETIKA ETA ONDAGAITZ ZENTROA

%5 DESKONTUA
kosmetikan
DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Iparraidea, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

oreKa
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

Semper
nutrizio eskola

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98

Semper
nutrizio eskola

%10 DESKONTUA
matrikulan

LESAKA | 948 63 82 99

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Urdu
Bera

%20 DESKONTUA
urteko abonuaren
matrikulan

Toki Ona Kirolegia | BERA
T. 948 63 02 15

ze la
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

ZU
lorenda
dekorazioa
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30€tik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86



Ipar Euskal Herrian etxebizitzek ez dute EETA behar; bai, ordea, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria. UTZITAKO ARGAZKIA

Eraikinak ikuskatzea, beharra lege da orain

Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak etxebizitzak oinarritzko baldintzak betetzeko moduan mantentzea du helburu. Hori horrela, arkitektoek segurtasunari, osasungarritasunari eta irisgarritasunari dagozkion alderdiak neurri objektibo eta bateratuen arabera neurtzen dituzte

NEREA BAZTERRIKA

Zehaztuta daude epeak. 2014, 2015 edo 2016an 50 urte egin dituzten etxebizitzek Eraikinak Ebaluatzeko Txostena (EET) izan beharko dute 2019ko urtarrilerako. 2017 eta 2018ko abenduaren 31 bitarte 50 urte dituztenek, berriz, 2020ko urtarrilean dute ikuskaritza teknikoa egin eta EETA aurkezteko epemuga.

Bizitegi kolektiboko eraikinak dira ebaluatzera behartuak daudenak: etxebizitza bat baino gehiago dituztenak (eraikinak bertzelako erabilerarik izan edo ez) eta jabeena da txostena aurkezteko ardura.

Beharra lege

Ez da atzoko kontua. 2011an, 8/2011 Errege Lege Dekretuan, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egin beharra zehaztu

zuten, higiezin arauturiko segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun edota apainduraren baldintzak betetzen zituztela ziurtatzeko.

Bi urteren buruan, 2013an, Birgaitzeari eta Hiri Berrontzeari eta Berrikuntzari buruzko legea tarteko, Eraikinak Ebaluatzeko Txostena (EET) sortu zuten. Azken hori, EITA ordeztuz, agiri nahitaezko bilakatu zen.

Hori abiapuntu, Nafarroako Gobernuak Eraikinak Ebaluatzeko Txostena arautzen zuen Foru Dekretua onetsi zuen.

**IKUSKATZERIK
EGITEN EZ DUTEN
ETXEJABEEI ISUNA
JARRIKO DIETE**

EIT eta ETTa zedarritu aitzinetik etxeetako jabeek izan bazuten eraikina egoki erabili eta mantentzeko betebeharra, baina beharra lege da orain. Datak zehaztuta daude: 2014, 2015 eta 2016an 50 urte bete dituzten eraikinek 2019ko urtarrilaren 1erako pasa beharko dute azterketa. 2017 edo 2018an 50 urte dituztenek 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen eta 2019an 50 urte dituztenek 2021eko urtarrilaren 1erako.

2020ko urtarriletik aitzinera eraikinak 50 urte igaro baino

**2017AN EGINIKO
TXOSTENEN %83AK
'GAI' KALIFIKAZIOA
IZAN DU**

LEGEARI BEGIRA

ETXEBIZITZA KOLEKTIBOAK

Berrogeita hamar urte dituzten etxebizitza kolektiboak dira EETA behar dutenak: pisuak, egoitzak, ostatuak, elkarri atxikitako etxeak...

EPEAK

2014-16 URTEETAN 50 URTE

50 urte 2014-2016 bitartean egin dituztenek 2019ko urtarrilaren 1erako.

2017-18 ARTEAN 50 URTE

2017 eta 2018an 50 urte dituztenek 2020ko urtarrilaren 1erako.

2019AN 50 URTE

2019an 50 urte dituzten etxebizitzek 2021eko urtarrilaren 1erako.

2020KO URTARRILETIK AITZINERA

2020ko urtarriletik aitzinera 50 urte egin baino urtebete lehenago.

lehen egin beharko dute azterketa (urtebete lehenago bederen). Bertzalde, bizitegi tipologiako era guztietako eraikinen bati Zaharberritze Babestuaren Ziurtagiria eskatzen bazaio, azterketa birgaitze prozesuarekin batera edo hori prestatu aitzinetik egin beharko du.


Gero eta gehiago aurkeztuak

Ikuskatzea pasatzen ez dutenik arau-haustearen araberrako isuna ordaindu behar dute. Aitzitik, azken bi urteetan izan den bilakaera aintzat hartuz, Gobernuaren erregistraturiko txostenek, kuantitatiboki, garapen nabaria izan dute. Izan ere, 2016an aurkeztu beharreko txostenen %7a bildu zuten heinean, 2017an %20,92ak aurkeztu zuen ETTa. Areago, %83ak 'gai' kalifikazioa jaso zuen.

Eskualdera begira

Garapena garapen, TTIPI-TTAPA banatzen den Nafarroako eremuan oraindik badira txostena pasatzeke edo laster pasatu beharra dutenak. Nafarroako Gobernuak etxebizitza bakoitzak duen urte kopurua ezagutarazteko eta azterketen gaineko informazioa biltzeko prestatuturiko webgunean (www.

Leitzaldea 128
 Malerreka 151
 Bertizarana 48
 Xareta 13
 Baztan 233
 Bortziriak 294



Eskualdeko 50 urtetik goitiko etxebizitza kopurua udalerrika. ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA

vivienda.navarra.es), herria, helbidea eta zenbakia zehaztuz, etxejabeek beren etxebizitzetarako buruzko egoera eta epeak ezagutzen ahal dituzte. Guztira ia 900 etxebizitza dira 50 urtetik goiti dituztenak (Leitzaldean 128, Malerrekan 151, Bertizaranan 48, Baztanen 233, Bortziritan 294 eta Xaretan 14). Horietako anitz etxebizitza bakarreko eraikinak badira ere, bertze batzuk pisuak, elkarri atxikitako etxeak, egoitzak edo ostatuak dira, ETTa behar dutenak, hain zuzen.

Helburuak eta indarraldia

EETak etxebizitza-eraikinen kontserbazioa bermatzea eta zaharberitze-lanak erraztea du helburu. Eraikinen segurtasuna, osasungarritasuna eta irisgarritasuna lortzeko asmoz, Hamar urteko indarraldia du agiriak. Aitzitik, eraikinaren egoera honda dezakeen ondorioz pairatu duten etxebizitzetarako jabeek hutsuneak konpondu edota bertze txosten bat egiteko eskatzen diete.

Kontserbazio egoera aztergai

Segurtasuna, osagarritasuna eta irisgarritasuna aztertzeko, ETTak hiru zati ditu. Batetik, eraikinaren kontserbazio egoe-

rari dagokionez, egiturazko eta eraikuntzako elementuen egoera neurri objektibo eta bateratuen arabera aztertzen da, beharrezko konponketak eta mantentze-lanak zehaztuz; bestetik, irisgarritasunari dagokionez, banan-banan aipatzen dira irisgarritasunari buruzko araudia betetzen ez duten elementuak eta horiek behar dituzten arrazoizko doikuntzak; eta azkenik, eraikin horiei Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria ematen zaie.

Azterketa begi bistaz egina da; bertzeak bertze, egiturari, fatxadari, estalkiari, hornikuntzari, ur zikinen sareari, iristeko erraztasunari eta energia eraginkortasunari erreparatuz.

Kalifikazioak eta ñabardurak

Horrela bada, eraikinaren kontserbazio egoeraren arabera, eraikinari gai edo ez gai kalifikazioa ematen zaio, ñabardura hauekin: gai, hutsune nabarmenik ez dutenei; gai,

hutsune arinekin; ez gai behin-behineko; eta ez gai.

Ikusatzeko kalteak borts mailetan sailkatzen dituzte arkitektoek eta egin beharrezko moldaketak egiteko uzten duten denbora-tartea akatsen larritasunaren arabera izan ohi da. Hutsune arinak dituztenek, erraterako, EETak indarra duen bitartean egin behar dituzte aldaketak.

Urratsez urrats

Ikusatzeara egin behar duten etxebizitzetarako jabeek teknikari eskuduna, hau da, arkitekto bat, kontratatu beharko dute. Teknikariak baliabide informatikoak erabili beharko dituzte txostena prestatzeko. Ondotik, jabeek kode jakin batzuk emanen dizkie, eta horrekin, agiri digitalerako sarbidea izanen dute. Jabeek EETra sartzeko kodeak jakinarazi beharko dituzte herriko udaletan. Hortik aitzinera, udalek izanen dute EETa hartu eta erregistratzeko ardurak.

**EDOZEIN BIZITEGIRI
 ESKA DAKIOKETE
 ETT-A, BIRGAITZE
 PROZESUA EGITEAN**

**MOLDAKETETARAKO
 DENBORA-TARTEA
 LARRITASUNAREN
 ARABERAKOA DA**



Laborra, EETetan aditua.

«Etxebizitzetarako iraupena mantentze-lanen arabera da»

GABRIEL LABORRA
 ARKITEKTOA

Laborra ondare arkitektonikoari buruzko ikastaroetan ibili da luzaroan, «berezi, Eraikinak Ebaluatzeko Txostena derrigortu denetik alor horretan espezializatu gara». **Eskualdean txostenek garapen kuantitatiborik izan dute?**

Gure esperientzia oinarri harturik, bai. 2016an bi ikusatzeko baino ez genituen pasa; 2017an hamalau eta aurten -lehendabiziko lauhilekoan zortzi pasa ditugu.

Zein izan dira kalifikazioak?

Guztiak 'gai, hutsune arinekin' kalifikazioa jaso dute, batek izan ezik. Bakarren batek hala kalifikatu aitzinetik moldaketak egin behar izan ditu.

Zergatik da garrantzitsua EETa?

Eraikinen segurtasuna eta iraupena bermatzeko eta arazoei aitzin hartzeko bitartekoa delako. Etxebizitzak «zaindu beharrezko bizitoki eta ingurua diren heinean, ikusatzeko gure historia eutsi eta zaintzeko bide ematen dute».

Nola ikusten dute etxejabeek?

Funtzio bera duten autoen IATA, osasun-azterketak... ez bezala, hasieran tramitetzat dute. Aitzitik, ikusatzeara zertan den ikustean eta arkitektoen azapenak jasotzean, eraikinen mantentzearen garrantziaz jabetzen direla uste dugu.

Langile batailoien arrastoa ezagutzeko hainbat ekitaldi prest

Apirilaren 26tik maiatzaren 12ra erakusketa Kultur Etxean, solasaldia eta txangoa egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gerra garaian eta ondotik bortxazko lana egin behar izan zuten langile batailoiek Beran utzitako arrastoa ezagutzeko egitarau zabaldua prestatu dute Udalak eta Kultura Batzordeak.

Apirilaren 26tik maiatzaren 12ra arte *Esklabotza Frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioetan* erakusketa irekiko dute Kultur Etxean. Ortzegunetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era irekiko dituzte ateak eta panelak ele biz dira.

Solasaldia eta txangoa

Apirilaren 26an, ortzegunetan 19:00etan Beralandetan, *Bortxazko lanak eta Pirinioaren fortifikazioa frankismo garaian* solasaldia eskainiko dute euskaraz Eurne Beaumont eta Fernando Mendiola adituek.

Apirilaren 29an, langileen batailoiek Beran utzitako arrastoa ezagutzeko txangoa prestatu dute, Aurelio Gutierrezek gidatua. Hilabeteko honda-

reko igande goizeko bederatzietan geldituko dira Herriko Etxeko plazan eta lau ordu inguruko txangoa egingen dute arrasto horiek aztertuz (Herriko Etxeko Plaza-Ibardin-Altzateko Plaza). Azalpenak gaztelaniaz emanen ditu Aurelio Gutierrezek.

Elkarrizan elkarteak boluntarioak behar dituela adierazi du

Elkarrizan elkarteak etxe partikularretan, egoitzetan edo ospitaletan dauden adinduei lagun egiteko boluntarioak behar ditu. Elkarteko kideak, bertzeak bertze, astelehenetan, 16:30ean, Berako San Jose Zahar-Etxeko edadetuekin paseoan ibiltzera etortzen dira. Ordu eta erdiko (gehienez ere bi ordu) ateraldia egiten dute. Adinduen esker oneko harreara ikusirik, udaberrira begira, elkarteak boluntario gehiago behar ditu. Interesdunek 948 635036 telefonora deitu behar dute, bulego orduetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatza Zahar Etxeko Kultur Astean

Aste Santuaren aitzineko astean, Kultur Astea izan zuten San Jose Zahar-Etxeko bizilagunek. Aste osoko ekitaldiak borobiltzeko, Fatima Gonzalezek zuzendutako Berako abesbatzaren bisita izan zuten martxoaren 24an. Giro ederrean pasatu zuten larunbat arratsaldea.

Ipuin-kontalaria eta baserriko parkea astebururako

Ttikienei zuzendutako ekitaldiak izanen dira asteburu honetan. Apirilaren 20an, ortziralean 18:00etan herri liburategian Ameli ipuin-kontalariak *Txanpon baten truke* emanaldia eskainiko du hauterentzat.

Apirilaren 21ean, 16:00etatik 19:00etara, Kulkiren eskutik baserriko kirol parke tematikoa paratuko dute Altzateko pilotalekuan, garai bateko baserriko jokoak plazaratuz. Ricardo Baroja eskolako Guraso Elkarteak antolatu du ekitaldi hori.

III. azienda erakusketa egingen dute apirilaren 28an

Apirilaren 28an Berako III. Azienda erakusketa eta nekazaritza produktuen salmenta egingen dute kiroldegi aitzinean. Bertako ekoizleen salmenta eta idi proba erakustaldia egingen dituzte.

Egun honetan parte hartu nahi duenak, bai salmenta aurkeztuz ere, telefono honetara deitu beharko du: 647254708. Parte-hartzaileei bazkaria emanen zaiela ere jakinarazi dute Herriko Etxetik. Izena emateko azken eguna apirilaren 20a izanen da.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



JURONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Miguel Laparra eta Josu Iratzoki, hitzarmena sinatzerakoan. UTZITAKO ARGAZKIA

Babes ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko hitzarmena

918 metro koadroko eremua utzi dio Udalak Nasuinsari Kaxernaginan, Suspelttiki inguruan

TTIPI-TTAPA

Kaxernaginan Suspelttiki inguruan, Berako herriaren 918,33 metro koadroko lursaila doan utzi dio Nasuinsa enpresa publikoari Udalak. Josu Iratzoki alkateak eta Nafarroako Gobernu Giza Eskubideetako presidenteordea den Miguel Laparrak martxoaren 28an sinatutako hitzarmenaren arabera, babes ofizialeko zortzi etxebizitza eraikiko dira eremu horretan, errentan emateko. Hitzarmen honekin martxan jarriko da bi erakundeen arteko elkarlana eta Navarra Social Housing, Nafarroako Gobernuaren alokairu-etxebizitzaren plangintzara egokituko da.

Hitzarmenaren arabera, etxebizitza-mota zehatz bat eraikiko da, eroso eta, aldi berean, Passivhaus estandarra erreferentziatzen hartuz, ia

energia-kontsumorik eragiten ez duen etxebizitza. Etxebizitzak 35 urtetik beheitiko gazteei zuzenduak izanen dira, baita ezintasunen bat edo bertzeko behar sozialak dituztenei. Udal ordezkariak eta Nasuinsakoek osatutako batzorde misto batek erabakiko du kolektibo bakoitzari dagokion etxebizitza kopurua.

Les figurettes antzerki taldearen 'Gatas' ikusgai

Les Figurettes antzerki taldeak Cristina Torresek idatzi eta zuzendutako *Gatas* antzezlan eskainiko du apirilaren 28an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Ordu eta erdi inguruko antzerkia gaztelaniaz eskainiko dute. Sarrera 4 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txistulariak sarituak Hernanin

Martxoaren 24an Hernaniko XIII. Txistulari Gazteen txapelketan, Berako bi txistulariok parte hartu zuten A kategorian (12 urte edo guttiagoko txistulariak). Sara Alzuguren Zabalak oroigarria eta zilarrezko saria lortu zuen eta June Lasarte Rodriguezek oroigarria.



UTZITAKO ARGAZKIA

Klarinete-joleak Andoaingo Jaialdian

B&B Klarinete laukoteak martxoaren 17an Andoainen ospatu zen Klarinete Laukote Jaialdian parte hartu zuen. Laukote hau, Berako Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako bi kidek (Ainara Pacheco eta Julia Artieda) eta Beasaingo Musika Eskolako bertze bi kidek osatzen dute (hortik datorkio B&B izena).

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Ehun bat dantzari izanen dira igandeko Tantirudantzan

Tantirumairukoekin batera, Berako Gure Txokoa, Zumaiaiko Txori Txiki, Ibarra Alurr eta Lezoko Murixka taldekoak datoz

AITOR AROTZENA

Tantirumairu euskal folklore taldeak antolatutako Tantirudantza jaialdia eginen dute apirilaren 22an. Herriko dantzari ttikiekin batera, Berako Gure Txokoa, Zumaiaiko Txori Txiki, Ibarra Alurr eta Lezoko Murixka taldetakoak izanen dira.

Igandean, 10:00etan taldeei ongiatorria egin ondotik, karriz karriz ibiliko dira beraien dantza saioak eskainiz. 12:15ean Zubigainekoa eskainiko dute herritarrek eta gero, plazan eginen dute jaialdia denak batera. Emanaldi horren ondotik, kanpoko taldeetako dantzari ttikiak herrikoen etxe eta elkartetan bazkalduko dute. Arduradun eta musikariek, berriz, elkarrekin bazkalduko dute. Bazkalondoan, 17:30ean Ttipika dantza gidatuak izanen dira plazan (euria eginen balu frontoian).

Musikaz betetako asteburua

Igandean, dantzariekin batera ibiliko diren musikariek ez dira izanen asteburuko



2016ko Tantirudantza. AITOR AROTZENA

doinu bakarrak. Apirilaren 21ean, larunbatean, 17:30ean Txamukos Mariatxiak aditzeko aukera izanendute Andra Mari Zahar-Etxean. Gainera, Txamukos taldearekin afari mexikarra ere izanen dute Iru-bide jatetxean.

Egun berean, 19:30ean Iruñeko Julian Gayarre abesbatza-aren emanaldia antolatu du Lesakako Abesbatzak elizan. Mezan abestuko dute eta ondotik, kontzertua eskainiko dute.

Bertze aldetik, kultur arloko kontuekin segituz, apirilaren 24an, asteartean, 17:30ean liburutegian ipuin-kontalaria izanen da, udal liburutegiak antolatutako ekitaldian.

Jon Olaizola txapeldunorde klub artekoan

Jon Olaizola txapeldunorde izan da Espainiako klub arteko txapelketan, Huarte klubarekin. Apirilaren 8ko finalean Javier Zabalak (San Cosme) 10-7 eta 10-1 irabazi zion lesakarrari, joan den urteko garaipena berretsiz.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Elutxa txaranga eta soinulariak erronkan

Elutxa txaranga eta soinularien taldearen arteko erronka lagunarteko egun borobila suertatu zen apirilaren 7an. Futbol-7 partida jokatu zuten Mastegin, eguerdian poteo musikatua eta errebantxa egin zuten Linddurren bordan. Bazkalondoko emanaldi ikusgarria ere eskaini zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euriari aurpegi alaia Gazte Egunean

Euriari aurre eginez, giro ederrean joan zen Buruztanka gaztetxeak antolatutako Gazte Eguna: gosaria gaztetxean, konpartsa karriz karriz, ginkana, sukaldaritza lehiaketa (argazkian), bazkaria, olinpiadak, elektropoteoa eta musika izan zuten, egun osoko gozagarri.

DenakBat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Pastorala gogoan kantaldia eta afaria egin dute

Buhameak, Gaztelu abesbatza, Niko Etxart, Mikel Markez eta Jesus Mari Lopetegik parte hartu zuten kantaldian

IRUNE ELIZAGOIEN

Apirilaren 7an *Karmen Etxalarkoa* pastoralean parte hartu zuten antzezle eta lanean aritutakoek elkartzea egin zuten Etxalarren. Pastoralaren gidari izan ziren Pantxika Urruti zuberotarrak eta bere taldekideek kontzertua eta afaria

antolatu zuten. Ilunabarrean kantaldia izan zen elizan eta ondotik ia 200 lagunek afaria egin zuten frontoian. Sorpresa izan zen, bertze abesbatzekin batera, Niko Etxart, Mikel Markez eta Jesus Mari Lopetegi bezalako kantari ezagunak herrian kantari aditzea.

Larraburuko urteko batzar orokorra larunbatean

Apirilaren 21ean, Larraburua jubilatuen elkartearen urteko batzar orokorra egingen dute Larraburuan bertan. Lehenbiziko deialdia 17:00etan izanen da eta bigarrena 17:30ean. Elkarrearen egoera ekonomikoa eta 2017ko kontuen azterketa, 2017an burututako ekintzak, aurten egin beharreko ekitaldien plangintza, bazkideen zerrendan izandako aldaketak, zuzendaritzaren aldaketak eta eskaerak eta galderak jorratuko dituzte bileran. Ondotik pintxoak eskainiko dituzte.

Jende aunitz ibili da Aste Santuan herrian

Martxoaren 29tik apirilaren 2ra Turismo Bulegoa zabalik izan da. Aste Santuan herrian jende aunitz ibili bada ere, datuek erakusten dutenez, iaz baino zertxobait gutiago pasa dira Turismo Bulegotik; 150 lagun inguru. Gehienbat Gipuzkoa eta Bizkaiko turistak ibili dira eta frantsesak nabarmen iaz baino gutiago. Batez ere herriaren inguruko informazioaz galdetu dute, baina Baztan edo lezeei buruz ere galdetu dute. Bi bisita gidatu ere egin dira herria eta herriaren historia ezagutzeko.



Niko Etxart, Jesus M Lopetegi eta Mikel Markez ere izan ziren. IRUNE ELIZAGOIEN

KAGU

LIBURUDENDA

Tel./ Fax: 948 638 232




Apirilak 23
liburuaren egunean

10% eko DESKONTUA
liburuetan



*lagunarte, famili,
kinto besta...*

**OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA**

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com



Euskaraldirako lantaldea sortzeko bilera ortziralean

Euskaraldiaren baitan, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz aritzeko erronka egin dute

NEREA ALTZURI

Han eta hemen ari dira Euskaraldia ekimena antolatzen, eta tartean, gure eskualdeko bailara eta herrietan ere, urratsak egiten ari dira. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua eta horren baitan, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, hamaika egunez euskaraz aritzeko erronka egin dute.

Egun horietan, hiztunek bi rol hartzen ahalko dituzte: Ahobizi eta Belarriprest. Ahobizi ulertzen duten guztiak euskaraz solasten dieten la-

gunak izanen dira (baita ezezagunei lehen hitza, guttienez, euskaraz egiten dietenak ere). Belarriprest, berriz, guttienez euskara ulertzen dutenak izanen dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

Herriko kasuan, apirilaren 9an, Euskara Batzordea gaia lantzeko bildu zen. Euskaraldirako lantaldea sortzeko eta jarduerak antolatzeko, ortzirale honetan, apirilak 20, bilera irekia egingen dute Herriko Etxean, 19:30ean. Herriko euskaltzale guztiak parte hartzera gonbidatuak dira.

Mitxelenatar akordeoilariak Igantzin

Maiatzaren 5ean, Gregorio eta Beñat eta Andoni Mitxelena aita-emeak Igantzin izanen dira kantu-aperitifan eta bazkarian akordeoilari. Lehenik ostatueta barna itzulia egingen dute eta ondotik, Biltoki elkartearen izanen den kantu-bazkaria girotuko dute.

Eskolako lagunak Bartzelonan eta Izaban

Joan den astean, eskolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak ikasbidaian izan ziren Bartzelonan. Aste honetan, 6. mailako ikasleak Izaban dira eskiatzen, Aste Zuriaren programaren barne. Informazioa, argazkiekin, hurrengo zenbakian emanen dizuegu.



MAIXE OSKOZ

Zuhaitz parke berria

Apirilaren 5ean, herriko gaztetxo eta gurasoek Senberroko-bordan dagoen zuhaitz parke berria estreinatu zuten. Aterpekoek sortu zuten eta Xabi eta Iban anaien gidaritzapean, ederki ibili ziren. 14 plataforma eta 12 jolas ditu eta 270 metroko zirkuitua da, Europako araudi berrira egokitua.



MIKEL LARRETXEAK

Irudi ederrak gure paisaiekin

Udaberrian sartu garenetik, egun gehienak euripean pasatu baditugu ere, zenbaitetan keinu batzuk ere egin ditu eguzkiak eta irudi ederrez gozatzeko aukera izan dugu gure bazterretan. Horren lekuko da Mikel Larretxeak Eguzkialdetik ateratako argazki hau.



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOAK: 633 480 563
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • BERA



Astelehenetik ortziraleara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA



Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra



Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Udaberri agenda bete-betea datorkio Biltoki Elkarteari

Larunbat honetako ezohiko batzarrean elkartearen kokapenaren etorkizunaz solastatuko dira

TTIPI-TTAPA

Hurrengo asteetan ez dute aspertzeko aukerarik izanen Biltoki Elkarteko arduradunek. Heldu den larunbaterako, urrutirago joan gabe, ezohiko batzarrean biltzeko deituak dituzte bazkideak. Aitzineko aldizkarian aipatutako gaiak elkarte bete-betean ukitzen duenez, horixe izanen da gai nagusia: elkartearen kokapenaren etorkizuna. Ondotik funtzionamenduari buruz sortu diren bertze zenbait proposamen ere eztabaidatuko dituzte: berogailuaren erabilera, sarrerako giltzarena, eta abar. Bilera apirilaren 21ean egingen dute, 21:00etan.

Maiatzekoak

Maiatzean sartuta, 5erako kantu bazkaria antolatuko nahi dute elkarteak. Mitxele-natar akordeoilariak, aita eta bi semeak, etorriko dira berriz ere. Hagitz gustura gelditu ziren herritarrak arantzarek eskainitako udazkeneko saioarekin, baina orduan eguraldiak lagundu ez zuenez, bertze saiakera bat izanen da Uda-



Mitxelenatarak Biltokian. O. TXOPERENA

berriko Besten egitarauaren barrenean.

Aste bat beranduago, maiatzaren 12an, larunbatarekin, Xabi Telletxearen omenezko VIII. Mendi Bizikleta Jaitsiera izanen da. Jakina denez, egun gehientsua hartzen du probak, goizean entrenamenduekin eta arratsaldean konpetizioarekin.

Eta azkenik, maiatzaren 26a izanen da elkarteko mendizaleen eguna. Baztan aldera joateko asmoarekin zebiltzan, eta Baztanek mendi-kaxko eder ugari baditu ere, Iparla aukeratu dute horien guzieren artean. Izpegiko lepotik aterako dira eta Iparlatik itzulia egin ondotik, bertan bazkaltzeko asmoa daukate.



OSKAR TXOPERENA

Arantzarako errepidearen garbiketeta

Urte hasierako elurtearen ondorioz, hainbat zuhaitz erori ziren errepidera. Nafarroako Gobernuak Gaztainbakarretik Arantzaraino dagoen errepide zatia gaineko alldetik garbitzeko bukatuta aski txukun gelditu da. Garbiketak ageri-agerian utzi du zenbait zatitan San Juan Xarreko bide zaharra.

Junta berri dute Baratzondoko bazkideek

Martxoaren 24an izandako urteko batzarrean junta berri zena gairik garrantzitsuenak. Azkenean kide berri bakarra izanen da hurrengo juntan: Batixta Migelena izanen da bokala Manuela Seinen orde. Honekin batera, Jose Antonio Urtizbera lehendakariak, Anttoni Goienetxe idazkariak eta Amalia Sein bokalak bertze bi urtez jarraitzeko asmoa agertu dute. Ana Isabel Etxeberria lehendakariordeari eta Anuntxi Txoperena diruzainari, berriz, urte bakarra gelditzen zaie.

Udaberriko Bestak maiatzaren lehen asteburuan

Maiatzaren lehen astebururako prestatu du Euskara Batzordeak Udaberriko bestetako egitarau zabala. Hurrengo aldizkarian emanen dugu berri zabalagoa, baina maiatzaren 4an, ortziralean, 25. urteurrena ospatzen ari den dantza taldeak saio berezia eskainiko du. Larunbatean, berriz, kantu bazkaria antolatu dute, Arantzako Mitxelena aita-semeekin. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko. Igandean, mendi ateraldia eta eskolako ikasleen antzerki emanaldia izanen dira.



ANSONEA OSTATUA

Etorri eta dastatu bertan egiten ditugun pastel eta tartak



ENKARGOAK HARTZEN DITUGU

T. 948 62 52 74

Foruen plaza, 1 · BERA



Bidasoa ibaian izokin arrantzan. Arrain migratzaileen inguruan ariko dira larunbateko jardunaldian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bidasoko Arrain migratzaileen I. Jardunaldia Beran

Beralandetan solasaldiak eta mahai-ingurua egingen dituzte larunbat goizean eta Bidasoa ibaira bisita gidatua arratsaldean

TTIPI-TTAPA BERA

Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Oier Iantzi Ordokik, Ana Altzuri Lasartek eta Lorea Flores Compainsek, Berako, Lesakako eta Baztango Udalen laguntzaz antolatuta, Bidasoko Arrain Migratzaileen lehen jardunaldia egingen dute apirilaren 21ean Berako Beralan-

detan. Solasaldiak, mahai-ingurua eta bisita izanen dute.

Egitaraua

Larunbatean, 09:30ean, aurkezpena egingen dute. 09:45etik 10:45era, *Ibaien kontserbazio egoera eta egur hilaren garrantzia* solasaldia eskainiko du biologian doktorea eta ibai

ekologian aditua den Lorea Floresek. Atsedendia 11:15etik 12:15era Baztan-Bidasoaldeko ur-faunaren aberastasunaz eta aniztasunaz ariko da Rafael Miranda, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta biologian doktorea (gaztelerez). 12:15etik 13:15era, Bidasoaz mintzo diren animaliaz ariko da Jorge Gonzalez, biologian doktorea eta DESMA Estudios Ambientales SL enpresako ingurumen aholkularia (gaztelerez). 13:15etik 14:00etara mahai-ingurua egingen dute partehartzaileek eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara Bidasoa ibaira bisita egingen dute, Baztan-Bidasoaldeko arrantzaleek gidatuta.

Izokin arrantzarako eguneko baimen berezia behar da

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 15ean abiatu da izokin arrantza sasoi, normalean baino bi aste lehenago. Amuarrain arrantzarako iaz baino baimen gehiago emanen dituzte (17.271 aurten eta 15.609 iaz). Izokin arrantzarako, lizentziak gain, eguneko baimen berezia behar da. Maiatzaren 1etik aurrera 30era irekiko da amuarrain arrantza denboraldia. Eguneko bi amuarrain baino gehiago ezin izanen ditu hartu arrantzale bakoitzak, eta gutenez 23 zentimetroko aleak atera daitezke. Ezkurra errekan, Elgorriaga parean, arrantzatu eta aske uzteko eremu berri bat izanen da.

Amuarrainarekin bezala, baimen sistema berezia izanen dute aurten izokin-arrantzaleek. Maiatzaren 28tik aurrera 13ra arrantzarako debekua ezarriko da. Denboraldiko eta arrantzaleko hiru izokin muga kendu dute aurten.

BORTZIRI GARRAIO TXARTELA



Egun batez topo trenean eta La Burundesa autobusean erabiltzeko balio du

Joan-etorri TARIFA		
ABIAPUNTUA	HELMUGA	HELDUA
DONOSTIA-IRUN	BERA	5,18€
DONOSTIA-IRUN	LESAKA	6,08€
DONOSTIA-IRUN	ETXALAR	7,08€
DONOSTIA-IRUN	IGANTZI	7,68€



Informazio gehiago: www.laburundesa.com | www.euskotren.eus | 948 303 505

euskotren



LA BURUNDESA



Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA
Tel.: 943 647 169



www.caserresidencial.es



Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - IRUN
Tel.: 943 667 780

«Zure ondoan, gehien behar duzunean»

Zoriontsu izateko zer behar dugun galdetuz gero, gehienon erantzuna «maite ditugunak zoriontsu izatea» izaten da. Horretarako gure ingurukoek eta guk bizi-kalitate ona izatea ezinbertzekoa da. Gure eskuetan dagoen guztia egin ohi dugu helburu horretara iristeko eta zenbaitetan profesionalen laguntza beharrezkoa izaten da.




ANAKA

Irungo erdigunean kokatua dago. 16 urte baino gehiagoko esperientzia dute adinekoak zaintzen. Familia giroko zentroa da, goxoa, eta gune komun zabalak dituena, tartean terraza handi bat.



BETHARRAM

Irun eta Hondarribia arteko mugan, Irungo hirigunetik bost minutura dagoen eraikin berri eta argitsua da. Arreta-modulu txikietan egituratuta dago eta berdegunez inguratua.



Egonaldi motak

Adineko eta familia guztien beharrak ez dira berdinak. Horregatik, beharren arabera egonaldiak eskaintzen dituzte.

- Egonaldiak **iraunkorrak** edo **aldi baterakoak** izan litezke. Urte-saso jakin batzuetan (oporrak, lan karga handiko garaiak...), zaintzaileek atsedean hartzeko... baliatu dezaketen zerbitzua da.
- Operazio edo gaixaldi baten ondotik, **atseden hartu** eta **osatzeko programa** bereziak ere eskaintzen dituzte. **Fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzu zabala** dute.
- **Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako** egonaldiak ere eskaintzen dituzte. Gaixotasunaren etapak kontuan hartuz, trebatutako profesionalak erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen dute zaintza.

EGUNEKO ZENTROAK

Pirinioko Departamentuarekin hitzarmenak ditu eta etxez etxeko zerbitzuari dagokien APA diru-laguntza jasotzen du. Hori horrela, **Iparraldeko adinekoek eguneko zentroak eskaintzen dituen zerbitzuez eta Iparraldera joateko garraio zerbitzuaz** goza dezakete.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

Abian da dagoeneko. Horri esker, **egoitzan eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak**, bai erizainek, auxiliarrak, psikologoak... eskaintzen dituztenak, **bai eta jantoki edo garbiketa-zerbitzuak ere, etxean eskaintzen ditugu.**

Bertatik bertara

Bidasoa eskualdean, **Bortzirietatik 15 minutura** daude. Menpekotasun egoeran dauden adinekoei behar dituzten zainketak eskaintzea eta familiartekoen eta zaintzaileen beharritan erantzutea da egoitza horien helburua. Hori lortzeko zaharren egoitza, eguneko zentroa eta babespeko apartamentuak jartzen dituzte erabiltzaileen eskura.

Adinekoen behar guztiak asetzeko lan-taldea

Arreta sozio- sanitario osoa eskaintzen dute.

- **Aisialdi programa zabala:** arte terapia, gimnasia, tailerrak, eskulanak, musikaterapia, jokoak, festak...
- **Zerbitzu profesionalak erabiltzaileen eskura:** medikua, farmazia, erizaina, psikologoa, gizarte langilea, okupazio terapia, fisioterapia eta errehabilitazioa, nutrizioa, podologia, odontologia eta dentista eta logopedia.
- **Sukaldea bertan.** Sasoiko produktuekin otordu osasuntsuak prestatzen dituzte.
- **Bestelako zerbitzu batzuk** ere aukeran: ile-apainketa, josteta-lanak, meza, laguntza teknikoan kudeaketa, kanpora laguntzea eta ordenagailu gela.

Fondak irabazi du seigarren pintxo lehiaketa

Pintxo Astean, guztira mila pintxo saldu dituzte parte hartu duten hiru ostatuen artean

MAIDER PETRIRENA

Aste Santuan herritarrek kanpora eta turistak herrira etorri ziren. Denbora lagun, herrian jende pila ibili zen landetxe zein kanpinean. Horrez gain, seigarren urtez, pintxo astea izan zen eta horretan Bustitz eta Fonda ostatuak eta Ariztigain kanpinak parte hartu zuten. Bina pintxo egin zituzten: Bustitzen, odolkitz betetako brika trufazko olio eta ilar kremarekin eta olagarroz salteatutako arrain torta xigortua; Fondan, arraultza krema eta iberiar brotxeta; eta kanpinean, Ehiza Larria eta hiru gutizi tortilla. Guztira mila pintxo saldu zituzten eta guttiatik, Fondako kremak irabazi zuen. Dastatu zuten artean, magra eta bi botil ardo zozketatu zituzten eta Alain Olaizola Mariezkurrenak irabazi zuen.



Pintxo irabazlea. JONE IRIBARREN

Eskertzekoa da hiru ostatuak hartutako lana, pintxo aste hau antolatua, herrian bertzelako mugimendua sumatzen baita. Ea hurrengo urteetan ere animatzen diren.

Aurten ere, apirilaren 1ean, kanpinean haurrendako jokoak, txokolatada eta opariak izan ziren. Bertzalde, denborak lagundu zuenez, urteroko prozesioa ere egin zen Aste Santuan.

Aralarko Mikel Goiaingeruaren bisita igandean

Igande honetan, apirilak 22, Aralarko Mikel Goiaingeruaren irudiari ongietorria eginen diete herritarrek. 17:00etan izanen da hitzordua. Biharamunean, berriz, apirilak 23, 08:00etan, urtero bezala, herritarrek agurra eskainiko diete.

Eskola ttikien VIII. joko besta egin dute herrian

Eguraldia lagun, Malerrekako eskola ttikiek VIII. Joko Topaketa egin zuten martxoaren 28an gure herrian. Lehen Hezkuntzakoak ginkana egin zuten eta Haur Hezkuntzakoak ipuinak aditu zituzten. Txan Magoaren saioaz gozatzeko aukera ere izan zuten.



KARMENTXU ANZIZAR

Kinto bestak ospatzen

Apirilaren 7an, hainbat kinto besta egin zituzten. Alde batetik, kanpinean 1950 eta 1951 urteetan eta 1967an sortutakoak elkartu ziren afaltzeko. Bustitzen, berriz, 1953an, 1954an, 1955ean eta 1956an sortutakoak bildu ziren. Guztiek giro ederrean afaldu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Koldo Herrera Valentzian

Lanean segitzen du Koldo Herrera Urrozek eta martxoaren 23ko asteburuan, Nafarroako txirindularitza federazioarekin Valentzian izan zen. Kirol kontuekin segituz, apirilaren 28an, Ander Larraburu Hernandorena, Eneko Ibarra Olaetxea eta Julen Lazkano Alzurik judoko txapelketa izanen dute.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130



Txupinazoa botatzeko proposamenak biltzen hasiak dira. UTZITAKO ARGAZKIA

Bestetarako prestaketa-lanetan ari dira herritarrak

Kartel lehiaketako lanak maiatzaren 11ra bitarte bilduko dituzte eta irabazleak 150 euro jasoko ditu

MARGA ERDOZAIN

Herritarrak ekain hondarreko egunetara begira hasiak dira. Bi hilabete eskas falta diren honetan, bestak antolatzeko lehendabiziko bilkura egina dute. Apirilaren 12an Herriko Ostatuan bildurik, herritarrak eta udal ordezkariak beraien ideiez solastatu ziren; bestak iragartzeko kartel lehiaketa eta txupinazoa botatzeko proposamenak aurkezteko deialdia ere abiatu dituzte.

Kartel lehiaketa

Udalak herriko bestak iragartzeko antolaturiko kartel lehiaketarako deialdi irekia egin du, parte-hartzaile bakoitzak lan bakar bat aurkez dezakeela zehaztuz. Era berean, herriko izaera eta kulturaren ezaugarriak azalratzea baloratuko duela adierazi du. Lanak A3 tamainan inprimatuta, udaletxean, aurkeztu beharko dira eta irabazleari kartela formatu digitalean ere eskatuko zaiola jakitera eman du (240ko resoluzioan, guttienez). Baldintzetan zehazten dutenez, lanak jatorrizkoa izan behar du, originala eta bertze inon

publikatu gabea. Maiatzaren 11ko 14:00 bitarte aurkez daitezke. Objektibotasunez hautatzeko, sinadurarik gabe aurkeztu beharko da, egilearen izen-abizenak, posta elektronikoa eta kontakturako telefonoa gutun-azal itxi batean bilduz. Irabazleak 150 euro jasoko ditu eta epaimahaia Udaleko bestetako batzordeak osatuko du. Aurkezturiko lanen jabetza-eskubidea Udalaren esku geldituko da.

Txupinazoa

Bestei hasiera ematen dien suziria botatzeko hautagaia aukeratzeko proposamenak biltzen ere hasiak dira. Donezteben erroldaturiko 16 urtetik goitikoek aurkez dezakete proposamena (izen-abizenak, NAN zenbakia eta proposaturiko pertsona edo taldearen merezimendua adieraziz). Herritar bakoitzak proposamen bat aurkez dezake, udaletxean edo emailez (*al katetza@doneztebe.eus*). Ekainaren 8a izanen da hautagaiak aukeratzeko azken eguna eta bestetako batzorde irekiak izanen du azken hitza.

Herri-galdeketa maiatzaren 6an izanen da

Maiatzaren 6an, igandean, herri-galdeketa izanen da; urtebeteko lanaren fruituak azalertzeko tenorea, hain zuzen. Herrian ez ezik, Elgorriagan, Iturenen, Zubietan, Donamarian eta Legasako biztanleek hautesontziak plazaratuko dituzte. Baina horretarako, aitzinetik, sinadurak biltzen ari dira, bai inguruko herrietan bai eta herrian bertan ere, Azkarretan, ortzegunetan, 20:00etan. Oraindik sinatu ez duenak apirilaren 24ra bitarte egin ahal izanen dute.

Apirila magia eta ipuin-kontaktetaz bukatuko dute

Apirileko hondar egunetan magia emanaldia eta Liburua-ren Egunaren harira antolaturiko ekitaldiak izanen dira herrian. Apirilaren 22an, 18:30ean, Oliver Magoak *Balore magikoak* helaraziko ditu, zineman, dohainik. Apirilaren 23an, 24an eta 27an, berriz, San Migel ikastetxearen Dorremi emanaldia ikusteko, eta Fernando Anbustegiren *Pentsatzeko ipuinak* entzuteko aukera izanen da. Hilaren 23ko kontakteta DBHko ikasleendako izanen da; 27koa, berriz, irekia, liburutegian, 20:00etan.

XI. Pintxo Lehiaketa apirilaren 27tik maiatz hasierara

Herriko sukaldariak zartaginak berotzen hasiak dira. Izan ere, apirilaren 27tik maiatz hasierara bitarte Pintxo Lehiaketaren XI. edizioa egingen dute. Herriko ostatu eta kafetegiak usain eta zapore gozoz beteko dituzte aurtengo sariak lortzeko.

Udalak hiru langile kontratatze deia egin du

Udalak herriko garbiketa- eta mantentze-lanak egiteko hiru langile kontratatze deia egin du. Hiruei lanaldi osoa eskainiko diete. Langile horiek, aitzineko urteetan egin duten bezalatsu, hautaketa proben bidez erabakiko dituztela jakinarazi dute.

Zortzi orduko photoshop ikastaroa eskainiko dute

Udazkeneko argazkigintza ikastaroaren arrakasta ikusirik, parte-hartzaileen gogoia asebetetzeko photoshop ikastaroa antolatu dute herrian. Apirilaren 27an eta maiatzaren 4an, 11n eta 18an 19:00etatik 21:00etara bitarte eskainiko dute Herriko Ostatuan.





Joaldunek, hartzak eta trikitilariak igande goizean karririkak girotuko dituzte.

Alacanterera joanen dira herriko joaldun eta trikitilariak

Larunbat goizean joanen dira eta buelta igande ilunabarrean egingen dute

ARKAITZ MINDEGIA

Apirilaren 21eko asteburuan Alacanteko Alkoi herrian ospatuko den Moro eta Kristauen Bestara joatekoak dira herriko hamasei joaldun, hartza artzaiarekin eta trikitilariak. Larunbat goizean abiatuko dira eta igande gauean egingen dute buelta. Astelehenera arte gelditzeko gonbidapena luzatu badiete ere, jendeak astelehena lana izaki, igandean itzultzeko asmoa adierazi dute. Igande eguerdian eskainiko dute ikuskizuna, herriko karriketaren barna, bertze gonbidatu batzuekin batera.

Tradizio handiko besta

Alkoiaren ospatzen den Moro eta Kristauen Besta bi bandoen arteko lehiaren oroimenean egiten den tradizio handiko besta da. Ospakizun egun horietan, Erdi Aroa irudikatu nahi izaten dute alkoitarrek. Aurten ere egitarau zabal eta anitza prestatu dute musikariaren egunetik (larunbatetik) asteartera (Araldeen egunera) bitarte. Bertzeak bertze, igandean, hilaren 22an, mezondoan joareen asotsa adituko da Alacanten. Egun handia, San Jorge Eguna, berriz, astelehenean izanen dute.

Sein herritarra berriki hasi den Green Series XCO lehiari ari da

ARKAITZ MINDEGIA

Joan den apirilaren 8an hasi zen Union Ciclista Erandio, Zorri Bike, Glober Bikers eta Balmasedako Bike Elkarteak antolatutako Green Series XCO mendi bizkikleta lehia.

Erandion, Akarlandan, eman zioten hasiera sei probet osaturiko lehiari. Seinek lehendabiziko frogan sub-23 kategorian 2. eta elite mailan 7. gelditzea lortu zuen. Honakoak izanen dira ondorengo probetarako aurrekusi dituzten egun eta tokiak: ekainaren 3an Ortuellan; ekainaren 17an Sodupen; ekainaren 30ean Balmasedan; uztailaren 15ean Lezaman; eta irailaren 9an Bilbon. Laster irekiko dute lasterketa horietarako izenematea. Informazio zehatza goa nahi izatekotan www.rfec.com atarian ekuara daiteke.



Javier Sein Katalunian.

Nazioarteko lasterketan

Ez da azken aldian parte hartu duen lasterketa bakarra. Izan ere, Aste Sainduan Igualadan (Katalunia) jokatu zen nazioarteko VolCat MTB Marathon lasterketan ere parte hartu zuen herritarak, bertze 750 lagunekin batera. Burubelarra ibili zen hiru egunez egin zituzten saioetan. Sailkapen orokorrean elite mailan 48. eta Sub-23 kategorian, berriz, 4. izan zen.

Udalak, eskolako moldaketa lanetarako 33.800 euroko inbertsioa egingen du

ARKAITZ MINDEGIA

Udalak, osoko bilkuran, Ikasketxe publikorako lursailaren sarbidea eta zerbitzuen urbanizazioa izeneko proiektua izan du hizpide. Bertzeak bertze, esku artean darabiltzaten moldaketa-lanak egiteko aurrekontuak bildu eta enpresek

eginiko eskaintzak aztertu dituzte. Proiektu hori aitzine-ramateko 33.866 euroko (gehi BEZa) inbertsioa egingen dute eta proiektua Apezetxea Anaiak S.L. enpresari esleitu diete. Moldaketa-lanak noiz hasiko diren zehaztear dago oraindik.



Zure osasun zentroa Irun erdi-erdian

centro médico
osasun zentroa

Bidasoa

Lezo, 4 - 20301, IRUN
Tel. : 943 63 39 74 - 943 63 40 38
cmbidasoa@centromedicobidasoa.com
www.centromedicobidasoa.com

BERRIKUNTZA
Ginekologia, obstetrizia
eta lagunduriko
ugalketaren unitate
berria Irunen.

OSASUN-ZERBITZUAK

- Kardiologia
- Familia eta Komunitateko Medikuntza
- Nutrizioa eta Dietetika
- Psikologia

ZERBITZU KIRURGIKOAK

- Kirurgia baskularra
- Kirurgia Orokorra eta Digestio-Kirurgia
- Obstetrizia-Ginekologia
- Otorrinolaringologia
- Traumatologia
- Urologia

BESTE ZERBITZUAK

- Podologia
- Erizaintza

ZERBITZU NAGUSI, DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOAK

Herritarrak Atlas Mendikateko tontorretan barrena

Joan den asteburuan, hilaren 14an, Afrikako ipar-mendebaldean dagoen Atlas Mendikatera joatekoak ziren David Juanikorena *Pentte*, Joseba Juanikorena *Domintxi*, Patxi Indakotxea *Ikazpe*, Pio Elizalde eta Igor Babaze herritar mendizaleak. Astebeteko egonaldian 4.000 metro inguruko bost mendi tontorretara goititzeko asmoz joan ziren. Apirilaren 21ean, larunbatean, bueltatuko dira. Beraz, hurrengo zenbakian eskainiko dira bidaiari buruzko xehetasunak.

Herriko xendetan egin nahi dituzten ibilbideak lotzen

Eguraldi onaren zain egon bidenabar, herritarrak ibilbideak zehazten hasiak dira. Herriko xendetan barrena ibili eta txokoak ikusi edo ezagutarazteko hiru irteera egiteko asmotan dabilta. Oraindik, nondik nora jo zehazten ari dira.

Musika Eskolako ikasleen kontzertua hilaren 25ean

Apirilaren 25ean, asteazkenean, musika eskolako ikasleen kontzertuak girotuko du herria. Hitzordua herriko estalpean dela jakinarazi dute, 17:30ean. Doneztebeko Musika Eskolan gitarra, bateria edota beste musika-tresnak ikasten dabiltzan herriko eta Malerreko gaztetxoak izanen dira musikariak eta herritar guztiei kontzertua ikustera joateko gonbidapena luzatu nahi izan diete. Era guztietako musika joko dute eta kanta batzuk banaka eta besteak taldeka prestatzen ari dira.

Aratz Elizalderen lanak Ohorezko Aipamena jaso du

Aratz Elizalde herritarrak Euskokultur Fundazioak eta Pamiela argitaletxeak, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren laguntzaz, antolatutako mikro-ipu in lehiaketan aurkezturiko *Lore Botoiduna* lanak Ohorezko Aipamena jaso du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardotegiko hitzordua errotuz

Hamar herritarrek Aste Santuko larunbata sagardotegian pasa zuten. Bapo jan eta edateko eta kontuak kontatzeko aprobetxatu zuten. Pixkan-pixkan urteroko hitzordua ohitura bilakatzen ari da. Argazkiak ederki islatzen duenez, giro ederra izan zuten.

Beñat Etxekolonea Serbiako errefuxiatuei laguntzera joanen da

Beñat Etxekolonea herritarra, No Name Kitchen boluntarioen elkartearekin bat eginez, Serbiako errefuxiatuei laguntzera joatekoa da. Apirilaren 12an abiatzekoa zen eta Maritxu Santxez herritararekin Bulgaria eta inguruak ezagutzen egun batzuk pasa ondotik,

maiatzaren 1ean sukaldari eta zerbitzari lanetan hasiko da, boluntario. Hilabete eta erdiz bertan lanean aritzea aurreikusiko du; eta beraz, San Juan Bezperarako, bueltan izanen da. Lerro hauen bidez, herriko lagunak esperientzia ederra opa nahi izan diote.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Maindire eskaintza anitza

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

MALERREKA



Zeraingo zerrategian izan zen Elgorriagako kuadrilla bat. MATTIN LARRALDE

Elgorriagatik Zerainera ideiak hartzera

Errotan zer egin jakiteko lantalde bat sortu da eta Gipuzkoako herriko zerrategia, burne meategiak eta museoa ikusi zituzten

MATTIN LARRALDE ELGORRIAGA

Errotarako ideak hartzeko Elgorriagatik lagun kuadrilla bat egun pasa joan zen Zerainera. Alde batetik, bertan daukaten museoa ikusi zuten eta bertze aldetik, zerrategi bat bisitatu zuten; bere garaian oholak egiteko makinaria uraren bidez sortutako elektrizitatearekin mugitzen zuena. Garai bateko burdin meategiak ere ikusi zituzten barrenetik. Sortu berri den errotarako lantaldea ideak hartzera joan zen. Herriar guztiei irekia da eta kanpotik etorritako ideiak ere ongi etorriak izanen dira.

Talo jatea

Aurten ere berriro izandu da talo jatea herrian. Guraso elkarteak urtean zehar antolatzen duen egitarauen barrenean. Aurten minbizia duten haurrekin lan egiten duen Adano elkarteari laguntzeko izan da dirua.

Elgorriagako Itzulia

Urtero bezala, Zorroilo elkarteak Elgorriagako mendi itzulia antolatu du eta maitzaren 20an jarri dute hitzordua. Nahi duenarentzat idekia da eta mendian bueltatxo bat ematera joateko deia egin dute.



ARANTXA ITURRALDE

Gaztain ximelak Beintza-Labaienen

Urtez urte errepikatzen den Gaztain ximelak bertako ohitura honek ilusioz eta gogoz elkartzen ditu Beintza Labaiengo haurrak. Aurtengo Ostegun Santuan ere, meza ondoren, bi auzotako haurrak goxokiak biltzen aritu ziren etxez etxe, garai bateko gaztainen ordez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bularreko minbiziaren ikerketarako dirua

Eratsunek bularreko minbizia metastasikoa ikertzen duen elkartearekin bat eginez, herri bazkaria egin zuen, ikerketarako dirua bilduz. Paella, makarroiak, postreak... prestatu zituzten. Herriaren elkartasunaren adierazle, 1.200 euro bildu zituzten 150 laguneko herriak.

 **aterki**

Tel. 943 730 699 | www.aterki.com

Araso poligonoa · Erregeoina behea, 2 J
20305 IRUN

Telleriarte 16. 4-5 pab. (Zubitxo)
20230 LEGAZPI

info@aterki.com



LEHEN

Arazaok dituzu
UR FILTRAZIOEKIN?
**OBRRARIK GABEKO
INPERMEABILIZAZIOAK**

LEHEN

LIZUNAREKIN eta HEZETASUNAREKIN
KONDENTSAZIOAGATIK?
ISOLAMENDUA

ORAIN

ORAIN

Narbarteko frontoia moldatuko dute mendeurrenean

25.000 euroko inbertsioa egingen dute, eta Bertizaranako Udalak eta Narbarteko herriak erdi bana ordainduko dute

TTIPI-TTAPA NARBARTE

Pilota plazan ageri den oroi-tarrian 1917koa dela agertu arren, 1918ko apirilaren 1ean inauguratu zuten Narbarteko pilotalekua. Beraz, ehun urte bete ditu Arribillagako Felipe Oteiza Iriarte ongileak Narbarteko herriari emandako frontoiak. Felipe Oteiza Bertizeko Jaurerriko jabea zen, oinordekotzan jaso baitzuen 1884an erositako bere aitaren, Pedro Andres de Oteizaren, eskutik. Urte batzuk beranduago, bere azken jabe partikularrak izanzen ziren Pedro Ziga eta Dorotea Fernandez ezagunei saldu zien jaurerria Oteizak.

25.000 euroko inbertsioa

1918an inauguratu zen, beraz, frontoia. Mende bat beranduago, Bertizaranako Udalak eta Narbarteko herriak, Andres Etxenike eta Jose Manuel Juanotena alkateek jakinarazi dutenez, frontoia zaharberritzeko asmoa agertu dute. Horretarako, 25.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusi dute eta erakunde bakoitzak erdi bana ordainduko du. Lanak udarako akitzea espero dute eta, orduan, itxura berriarekin ospatu nahi dute mendeurrena.

Andres Etxenikek, Bertizaranako alkateak, plaza horretan sortutako hainbat pilotari ditu gogoan: bertzeak bertze, Carmelo Berho eta Leontxo Arretxea (1940ko hamarkadaren bueltakoak) eta Jose Huarate eta Pedro Ibargarai *Pirelli* edo gaur eguneko David Albiasu, Julen Iriarte eta Gorka Agirre.



Andres Etxenike eta Jose Manuel Juanotena, Narbarteko frontoian. JM ONDIKOL

GURE IKASLEEN AHOTAN

Maria URRUTIA, Elizondo >

“Gizartea taldean bizitzeko prestatuta dago eta denon artean ezagutzak eraikitzea ezinbertzekoa da”

Maria Urrutia Karrikaburu elizondoarra Mondragon Unibertsitatean Haur Hezkuntza graduko 4. maila bukatzen ari da.

Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik gustatu izan zait haur hezkuntza eta nahiko argi neukan haurrak gustuko izateaz gain, 0-6 urte bitarteko adin tartekak behar zuen errespetua eta garrantzia merezi zuela. Beraz, hezkuntza sistemaren parte sentitzeko eta bertan eragiteko pausua ematea erabaki nuen. Informatzen hasi nintzenean ohartu nintzen herriko zenbaitek Mondragon Unibertsitatean ikasi zutela, beraz, haien testigantzak eta iritziak eta unibertsitateko printzipioak eta metodologia gustuko nituenenez, bertan ikastea erabaki nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Lau urte hauetan bizitako esperientzia guztiz positiboa izan da, izan ere, pertsonalki zein profesionalki hezteko aukera izan dut. Herritik alde egin eta bertze leku batera bizitzera joatea nahiko gogorra egin zitzaidan hasieran, baina, jendea ezagutu eta bertara egokitu bertzerik ez nuen behar izan arras ongi sentitzeko. Profesionalki ere gorakada arras nabaria izan da. Lehenengo urtetik hona irakaste lanbidez eta hezkuntzari buruz ikasitako guztia ikaragarria izan da, esperientzia bizi beharrik bertzerik ez dago horretaz ohartzeko eta hezkuntza mundua zein zabala den konturatzen. Beraz, hainbat dira orain arte garatutako kompetentziak; hala nola, lidergoa, talde lanean aritzea, arazoak konpontzeko gaitasuna, erabaki ahalmena, komunikazio eraginkorra...

Nola definituko zenuke HUHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

HUHEZIKo metodologia arras berritzailea dela erranen nuke, ikaskuntza tradizionala gibelean utzi eta aitzinera pausua nabaria da. Unibertsitatean talde lanari garrantzi handia ematen diote, guztiz positiboa da. Gogoan dut lehenengo urtean nahiko izututa nengoela, aitzinetik ohituta nengoen indibidualki lan egitera eta jauzia nabarmena izan zen. Hala ere, gerora konturatu nintzen gizartea taldean bizitzeko prestatuta dagoela, eta denon artean ezagutzak eraikitzea ezinbertzekoa dela, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko aukerak ematen dituela. Metodologiaren bertze berezitasun bat teoriaren eta praktikaren uztarketa da. Gradu osoan guk aukeratutako eskoletan praktikak egiteko aukera daukagu (bertan zein atzerrian) eta horrek errealitatea ezagutzeko aukera ematen digu.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Hurbiltasuna. Gela bakoitzean 26 ikasle inguru gaude eta denok elkar ezagutzen dugunez, lan giro zein laguntasun giro ona sortzen dugu. Gainera, irakasleekin dugun tratua berezia da, guztion artean familia handi edo kooperatiba ederra sortzen dugu.

www.mondragon.edu/prest



Teresa Rojo Larralde lesakarraren '14 ofizio, 15 miseri' argazkia, publikoak saritutakoa. TERESA ROJO

Inauterietako argazki lehiaketak baditu irabazleak

Epaimahaiaren saria Berako Juan Carlos Olaetxeak irabazi du eta erabiltzaileena Lesakako Teresa Rojok; parte-hartzaileen eta boto-emaitzen artean Juana Etxeberria izan da sariduna

TTIPI-TTAPA

erran.eus interneteko atariak lehen aldiz antolatu du inauterietako argazki lehiaketa aurten. 34 argazki aurkeztu dira lehiaketara eta saridunak zein izan diren ere jakinarazi dute.

Argazki horien artean, Berako Juan Carlos Olaetxeak ateratako *Ikusiz ikasi* argazkiak irabazi du epaimahaiaren saria. Joaldun ttiki baten ikusmina adierazten du koloretako argazkiak. Hala, Nekaitur Nekazalturismo Elkartearen Nekatur Bono orlegia eskuratu du Olaetxeak, bi lagunendako bi gau eta bi gosari eskaintzen dituen egonaldia.

erran.eus atariko erabiltzaileek ere izan dute hitza eta kasu honetan, Lesakako Teresa Rojo Larralde ateratako *14 ofizio, 15 miseri* txuri-beltezko argazkiak jaso du boto



Juan Carlos Olaetxearen 'Ikusiz ikasi', epaimahaiaren saria. JUAN CARLOS OLAETXEA

gehien. Mozorroen harat-honata irudikatzen ditu argazkiak. Honenbertzez, Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuitua eta otordua irabazi ditu.

Lehiaketako parte-hartzaileen eta internet bidez botoa

eman dutenen artean Legasako Arotxa jatetxean bi lagunendako otordua zozketatu da eta Legasako Juana Etxeberriari egokitu zaio.

Sari-banaketa apirilean egingen da, saridunei jakinaraziko zaien egunean.



2018ko gidaren azala.

Aisialdia eta Gastronomía Gida argitaratu du Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa, Mendialdea eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomía Gida argitara eman berri du Ttipi-Ttapak. Bertan, inguru honetako 130 bat jate-txe, ostatu, komertzio, udal eta aisialdirako enpresen eskaintzaren berri ematen da 88 orrialdetan, bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Baztan-Bidasoa-Xareta-Mendialdeko mapa bat ere badu. Horretaz gain, herri bakoitzean eskura dauden zerbitzuak eta urteko agenda ere topa daiteke argitalpenean.

8.000 ale

8.000 ale argitaratu dira, iaz bezala, turistak ibiltzen diren tokietan banatu direnak, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egiteko lagungarri izateko. Era berean, iragarkia jarri duen jatetxe-ostatu bakoitzean ere utzi dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko eta gurera etorritako bisitariak aunitz erabili omen dituzte Aste Santuan.

2018ko denboraldia hasi dute Leurtzako urtegian

Aste Santuan ireki zen eta hiru langile hartu dituzte Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek bertan lan egiteko


JAIONE ARIZTEGI URROZ

Urtero bezala, Aste Santuarekin batera, Leurtzako urtegiako denboraldiari hasiera eman zitzaion. Aurten ere, hiru langile hartu dituzte Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek bertan lanean aritzeko. Aurteko urtean bezala, Iñigo, Marga eta Mari Jose izan dira kontratatuak. Apirilean hasi eta azaroa bitarte arituko dira. Berrikuntzarik ez dago aurten, eta beraz, azken urteetan bezala, 3 euro ordaindu beharko dira bertaratzen den auto bakoitzarengatik.

Ekaineko besta antolatzeko bilera egin dute Urrozen

Iaz Maerreaka eguna Urrozen izan zela eta, ez zen azkeneko urteetan ekainean egiten den besta antolatu. Aurten ordea, antolatzeko asmoa dago herrian. Gazteak gogoz daude, eta hortaz, lehen bilera egin zuten joan den ortziralean, apirilaren 13an, Herriko Ostatuan.

Erabakitakoarekin berri gehiago emanen dugu aurrerago, oraindik ere bilera gehiago ere egingen baitira zer eta nola egin zehazteko.



Leurtzako etxola. JAIONE ARIZTEGI



2013ko ekaineko besta. JAIONE ARIZTEGI

Osasunez zahartzea lantegia eskainiko dute Beran

Modu aktibo eta osasungarrian zahartu nahi duten 60 urtetik gorakoei zuzendua 'Osasunez zahartzea' lantegia eskainiko dute Berako Lagun Haundiak elkarteak (Legia, 26) maiatzaren 7an, 9an, 14an eta 16an, 10:00etatik 12:00etara.

Lantegia gaztelaniaz egingen da eta doakoa da, baina izena eman beharra dago, 848 423450 telefonora deituz edo www.escuelademayores.navarra.es webgunean.

Lesakako Osasun Etxeak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Lagun Haundiak elkarteak laguntzen dute antolaketan. Lehen saioan zahartze prozesuaz ariko dira, bigarrenean gorputzaren zaintzaz, hirugarrenean, norbere gogo eta emozioak zaintzeaz eta laugarrenean harremanak eta inguruaren kuidoaz.


DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabekoa Donezteben etxe berria erosteko



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak





Santiagoako Bideko eta Gorbea eta Txindokiko irteerak diruz lagunduko dituzte.

Bidaiak lotuta eta irteeretako diru-laguntzak zehaztuta

Ekain hondarrean Goierriko mendizaleen urteurrena ospatzeko Txindokira joanen dira

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko batzordeek, martxo bukaeran eginiko azken bilkuran, bigarren seihielerako aurreikusitako bidaien harira eskaturiko aurrekontuak izan zituzten hizpide; eta bide batez, mendi-irteeretako laguntzak mahairatu zituzten.

Iraila eta urria, bidaiaz josiak

Bidaiei dagokienez, bertzeak bertze, egunak zehaztu eta bakoitzaren prestaketa lanak egiteko agentziak adostu zituzten. Horrela bada, honakoak dira aurreikusitako datak eta arduradunak: Terueleko bidaia urriaren 22tik 25era bitarte egingen dute eta Ikemevoyek antolatuko du; Mediterraneo-ko itsas-bidaia irailaren 17tik 24ra izanen da, eta Eroski Bidaiak enpresak izanen du hori antolatzeko ardura. Urriko lehendabiziko hamabortzaldia Benidormen pasatuko dute. Eta azkenik, azaroaren 6tik 15era, Kanaria Uharteak bisitatzeko aukera izanen dute bazkideek. Azken bi bidaiak horien nondik-norakoak zehazteko lana Barcelo agentziari eman diote.

Mendi-irteeretarako laguntza ekonomikoa

Bigarren seihielerako egingen dituzten bidaietako xehetasunak lotzearekin batera, mendi-irteerez solastatu ziren.

Bertzeak bertze, elkarteko kideek Txindokira igo eta Aralarko Natura Parkea ezagutzeko aukera ekaina hondarrean (data oraindik zehazteke) izanen dute. Goierriko eskarmentu handiko mendizaleen hamargarren urteurrena ospatzeko hitzordu horretan Euskal Herriko ehunka mendizalaren parte-hartzea espero dute. Hori horrela, guztiek bideetan bat egin ez dezaten, hainbat ibilbide antolatuko dituzte. Denak Oiduien elkartuko dira, bazkaltzeko. Bazkalondan, musika lagun, kantuan eta dantzan ibili ondok, 16:00etan Lizarrustin hartuko dute itzulerarako autobusa.

Aitzitik, ez da elkarreak diruz lagunduko duen ateraldi bakarra. Izan ere, azkeneko bilkuran, dagoeneko abian den Santiago Bidea zein Gorbeako igoera egiteko ere ekarpena egitea erabaki zuten.



FERNANDO ETXEBERRIA

Soinketa Eguna, ikasitakoa plazaratuz

Apirilaren 5ean elkarteko kideek Soinketa Eguna izan zuten Donezteben. 44 lagunek, Patxi Txokarro irakasleak urte osoan Urdazubin, Elizondon, Donezteben eta Leitzaan eskainitako saioretan irakatsitakoa plazaratu zuten. Ondotik, gimnastek, bertze 40 kideekin, bazkari ederra egin zuten.



Ibilbidearen zati gehienak aurtengo urtean egin nahi dituzte.

Donejakue bidea egiten hasiak dira

Aste Santuan Santiago Bidean ibili dira elkarteko hainbat kide. Bi taldetan joan dira: batzuk Kostako Bidetik hasi dira, Irun abiapuntu zutela; bertzeak, berriz, Donibane Garazitik abiatu dira.

Zehazki, zazpi dira Irunetik Donostiarantz abiatu direnak; bertze zortzi, berriz, Donibane Garazitik Orreagarako ibilbidea egin dutenak. Argazkiak ederki islatzen duenez, giro ederra izan dute Donejakue Bidearen hasieran.

Bai Kostako Bidea egiten ari direnek, bai eta bertzean ibilitakoek ere, Santiagoako bidearen zati gehienak, ahal izanez gero, aurtengo urtean egiteko asmoa adierazi dute.



Emakumezkoen arropetan markarik onenak

5€ / 10€ / 15€ / 20€

Apirilak 20, 21 eta 22

BIOK

ventabiok.com

Guess - Salsa - Desigual - Morgan de Toi - Naf Naf - Kookaï - Le Temps Des Cerises - DDP Desires - Esprit - Freeman T. Porter
- Molly Bracken - Gabrielle by M.B. - Garcia Jeans - JOTT - La Fée Maraboutée - Lois - Roxy Schott - Scotch & Soda - Shana -
Smash - Street One - Teddy Smith

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arduro
gazte eta helduentzako



Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

Maite moda
arropa eta osagarriak

f Maite Moda
T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 behea
DONEZTEBE

kokette

Santiago, 22 Elizondo
948 452 601

f

Olatz
Zapata-denda

IREKI BERRIA

f Olatz Zapata-denda
T. 948 450 339
Elizagibela, 5 - behea | DONEZTEBE

2018ko UDABERRI-UDAKO
MODA GEHIGARRIA

URTEKO HILABETE EGUZKITSUENEKIN BATERA,
ARMATRUAK KOLOREZ, DISTIRAZ, BAKEROZ ETA TTIKIKERIA
ORIGINALAZ BETETZEKO TENOREA AILEGATU DA

EMAKUMEZKOAK

Gardena, joera nabarmenena

Gardentasuna, ukitu modernoz hornitua, izanen da nagusi aurtengoan. Bertzeak bertze, binilo, plastiko edo tuletan ikusiko dugu. Areago, orain artean soineko eta blusetan ikusten genuena aurren gabardina, zapata, bota edota poltsen ere nagusi izanen da.

Gau eta egun distiratsu egoteko...

Lentejuelak gaueko dizdira izatetik eguzkipeko argi izatera igaroko dira. Batzuetan ezkata distiratsuz eginiko telak ikusiko ditugu; bertzeetan, ttikikerien pizgarri izanen dira.

Zaharrak berri

Mende hasierako bakeroaren joera berrartuko da. Bai jantzi osoetan, bai eta soineko edo berokietan ere, tela bereko petatxo horniturikoek indar handia izanen dute.

Kolore ausartak

Pastel-koloreak nahikoa izanen dira karrikak bizitzeko. Orain artean guttitan ikusi izan den lila izanen da moda-modako kolorea. Halere, kolore biziak indar handia izanen dute: arrosak, berdeak, horiak... baldintza bakarra kolore ausartak erabiltzea eta muturreko nahasketak saihestea izanen da.

OINETAKOAK

Perlaz, lokarriz, tapizatu koloretsuz edota estanpatu loretsuz hornitutako sandaliak, espartinak edo botak izanen dira udaberri eta udan nagusi. Erosotasunaren adierazle, emakumezkoetan plataformak nagusituko dira; gizezkoetan, berriz, zapatillak.

IPINGI

ARROPA eta OSAGARRIAK

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

Santiago 88 ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es
www.ipingi.es



Beola Etxea


VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709

www.beolaetxea.com 



Udaberri-udaka
MODA BERRIA
DAGOENeko ZURE ESKURA



OSAGARRI, BITXI, BOLSA
eta OINETAKOETAN
aukera zabala

LURINDEGIAN
sekulako
eskaintzak!!

HAUREN ARROPA
3-14 urte bitarteko
neurriak

smash!

Vilanova b.young®
accessories

 CASUAL FRIDAY

BLEND

SURKANA

ANDY-Z
Entendemos tu camino

ICHI


BASS3D
Xti

TIFFOSI KIDS
TIFFOSI

Xti.





HAURRAK



Natural eta eroso

Kolore biziak eta naturarekiko maitasuna islatzen duten irudi eta leloak dira pil-pilean daudenak. Hori horrela, loreak, flamenkoak eta palmondoak izkin guztietan ikusiko dira, lasaitasun eta opor kutsua hedatuz.

Pastel-koloreek ere beren tokia izanen dute, eta bereziki, zuriaren gainean edo bakeroarekin nahasiz erabiliko dira, gehiago nabarmentzeko.

Munstroak maite dituztenek ere azken tendentziak lagun izanen dituzte. Pertsonaia dibertigarri horiek arrakasta handia izanen dute.

Erosotasuna bermatzeko, forma irregularreko jantzi lasoek indar handia hartuko dute, bereziki gona eta txaketetan.

Era berean, udaberri eta udan jantzi informalak, gazteen tendentziei keinu egiten dietenak, izanen dira nagusi.

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 • Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALEDATAN IREKIA

facebook | B-KARO | Kiriki moda infantil | Pimbalina | 3pommes | tuc tuc | woyofat tuc arropa



GIZONEZKOAK



Neurrira eginiko atorrak, jantzi distiratsuak eta zapata dotoreak izkin guztietan ikusiko ditugu. Adituek genero-aurreiritziak gaindituz jantzi eta osagarriak askatasunez aukeratzea aholkatzen dute. Hori horrela, gero eta gehiago dira originaltasunaren bila hasi eta arropa dizdiratsuen aldeko apustua egiten dutenak. Osagarrien artean erlojuak nabarmenduko dira. Eta noski, egun eguzkitsuetan betaurrekoek hutsik egin ez dezaten, nahi bertze aukera izanen dira eskuragarri!

M&M
MERCHE MODA NOVOS

ROBERTO VICENTTI

RAMON SANJURJO

RAMON SANJURJO

RAMON SANJURJO



Zatoz Venta Peiora moda ezagutzera

3 POMMES AMERICAN TOURISTER BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DESIGUAL DOCKERS EA7 EMPORIO ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM IKKS JACKS&JONES KAPORAL LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEGO WEAR LETEMPS DE CERISES LEVIS LEVIS KIDS LLOLIPOPS MANGO MILLET NAPAPIJRI NORTON ONLY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA BY MANGO WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel : +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarina | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

VENTA PEIO
Zure erosketa gunerik hoberean
Euskal Herriko bihotzean



Euskal Herria Mendi Erronkan izen-ematea irekita dago, maiatzaren 15a arte.

XL. Herri Kroserako prest daude korrikalariak

Apirilaren 21eko krosa eta ekainaren 2ko Euskal Herria Mendi Erronka dira udaberriko kirol hitzorduak

JUAN MARI BARRIOLA

Apirilaren 21ean, larunbatean, Leitzako Herri Krosa izanen dute herrian. XL. edizioarako prestaketa lanak bukatu dituzte. Ibilbidea, irteera ordu-tegia, kategoriak... guztia zehaztuta dute.

Benjaminen (2009 - 2018 urte bitartean sorturikoak) 16:30ean izanen dute hitzordua, 800 metroko ibilbidea egiteko. Gaztetxoentzat, 2002 - 2008 urte bitartean sorturikoentzat, berriz, 2.250 metroko ibilbidea antolatu dute. 17:00etan abiatuko dira. Ibilbide absolutua (2001etik aurrera sortutakoentzat) egiteko asmoa dutenek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 4.500 metro (bi itzuli) edo 9.000 (lau itzuli). Izen-emate momentuan zehaztu beharko da aukeraturiko itzulia.

Izen-ematea eguna baino lehen (www.kirolprobak.com helbidean) edo egunean bertan, lasterketa aurretik, egin daiteke. Apirilako kirol hitzordu horren ondotik, mendizaleek Euskal Herriko Mendi Erronkaren VI. ediziora begirako prestaketei ekinen diete.

VI. Euskal Herria Mendi Erronka

Ekainaren 2an, larunbatean, VI. Euskal Herria Mendi Erronka izanen dute herrian. 67 kilometrotako eta 7.200 metrotako gainbehera duen erronka Leitzan hasi eta Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberrin barna ibili ondotik, herrian bertan bukatuko da. 08:00etan abiatuko dira plazatik. EHMEko antolakuntzako kideek mendizaleei parte hartzeko deia egin diete.

Izen-ematea irekita dago, maiatzaren 15era arte (*ehmen dierronka.eus atarian*). Federatuek 66 euro eta gainerakoek 70 ordaindu beharko dituzte. Ordainketa horrekin parte-hartzea ez ezik, erantzun zibileko aseguruia, istripu aseguruia, osasun-laguntza, txip bidezko kronometraje sistema, korrikalariaren poltsa, duxak, doako garraio zerbitzua eta proba amaierako otordua eskainiko dituzte.

Apirilaren 16a baino lehen parte ez hartzea erabakitzen dutenei %100a itzuliko zaie. Hortik aurrerako erabakietan ez da itzultzerik egingen.

Udal Energia Plana egokitzeak gastuak murriztea eragin du

Joan den urtean Udal Energia Planaren baitan harturiko zenbait neurriren ondorioz, Udalak 2020rako aurreikusitako helburuetariko batzuk betetzen ari direla jakinarazi du. Izan ere, planak gastua, energia kontsumoa eta CO2 emisioa murriztea aurreikusi zuen. Urtebeteren buruan, «tendentzia positiboa» atzeman dute energia gastuetan. 2017ko urtarriletik otsailera bitarteko epealdian energia gastua 17.448,20 eurokoa zen heinean, aurten, 10.555,30 eurokoa izan da.

Gizarte ekonomian ekitea hizpide apirilaren 19an

Apirilaren 19an, ANELen (Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresa) eta Ernaizu Kooperatibaren eskutik gizarte ekonomian ekitea izanen dute hizpide. Besteak beste, Ernaizu Kooperatibak, Basaburuko emakumeek osaturikoak, jabetxe-denda, ostatu eta *scape room*aren sorreran eta kudeaketan izaniko esperientzia mahairatuko dute. 19:00etatik 21:00etara bitarte bilduko dira, udaletxean. Izena 617 609328 telefonora deituz edo men dialdea@cederna.es helbidera idatziz eman daiteke.

Funtzio anitzetako hiru langile kontratatzeko probak egingen dituzte

Udalak funtzio anitzetarako hiru langile kontratatzeko deialdia egin du. Apirilaren 13ra arte bildu dituzte lanpostu-eskaerak sailkatzeko probei ekinen diete orain. Hiru proba egingen dituzte, apirilaren 19an, 23an eta 26an (euskara proba, teorikoa eta praktikoa,

hurrenez hurren). Lehendabizikoa baztertzalea izanen da. Izan ere, Nafarroako Enplegu Bulegoan izena emana izatea, langabezian egotea eta gidatzeko baimena izatearekin batera, euskararen ezagutza ezinbestean bete beharreko baldintza gisa ezarria zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beste urrats bat irisgarritasunerantz

Amazabal institutuko eta Erleta eskolako ikasleek joan den urtean abiatutako Urratsez Urrats Proiektuari jarraipena eman diete. Guztientzako irisgarria den herria helburu, kalejira erraldoia egin zuten martxoaren 28an. Maiatzera bitarte lanketarekin jarraituko dute.

Pestetako Gazte Eguna antolatzen deia egin dute

Gazte Asanbladak Leitzako Pestetako Gazte Eguna antolatzen deia egin du. Abuztuaren 13rako antolaketa-lanak herritar guztien artean eginez, era guztietako gustuei egin nahi diete tarte. Horrela bada, aurreneko fasean musika taldeak aukeratu dituzte. Eta gero, eguneko gainerako ekitaldiak zehaztu eta otorduetako kontuak lotzeari ekin diete. Era guztietako proposamenak onartzen dituzte. Kuadrilletan aukerak aztertuz gero, Pesta Batzordean aurkeztea eskertuko dute.

Salmenta bide laburrez ariko dira maiatzaren 3an

Martxoaren 22an abiatu ziren ekoizle, saltzaile eta ostalarientzat Bertatik Bertara formazio saioak maiatzaren 3an, ostegunean, bukatuko dira. Azken hitzordua Miren Begiristainek eskainiko du, udal-txean, 16:30etik 19:30era bitarte. Elikagaien inguruko legedi higieniko-sanitarioari eta salmenta bide zuzenei buruzko azken zertzeladak azalduko ditu EHUko irakasleak. Zehazki, ekoizle bakoitzari mesedegarrien zaizkion bidez eta prezioaren egituraketaz ariko da.

Taxi lizentzia esleitzeko lehiaketa bidezko deialdia egin du Udalak

JUAN MARI BARRIOLA

Leitzako Udalak, martxoaren 20an eginiko batzarrean, taxi lizentzia bat esleitzeko lehiaketa bidezko deialdia egitea erabaki zuen. Eskakerak apirilaren 26ra bitarte aurkez daitezke, Leitzako Udaleko Erregistro Orokorrean.

Proposamenak posta bidez ere bidal daitezke, posta bulegoan igorpen-data egiaztatzen gordekinarekin. Interesdunek baldintzei edo beharrezko agiriei buruko xehetasunak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian aurkituko dituzte.

Amazabal ikastetxeko ikasleek Gozamenez lehiaketan parte hartu dute

JUAN MARI BARRIOLA

Amazabal ikastetxeko Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleek V. Gozamenez lehiaketan parte hartu dute, *Dantzatu maitatuz* lanarekin. Lehiaketaren helburua Nafarroako gazteei film labur bat egiteko aukera emanez transexualitatearen inguruan hausnarraraztea da.

Lehiaketan onartutako film labur guztiak www.gozamenez.com web orrian daude ikusgai. Apirilaren 9an ireki zen bozka fasea, eta 29ra bitarte botoa eman daiteke. Maiatza-



Film laburreko irudi bat.

ren 3an, ostegunean, eginen dute sari banaketa. Batetik, epaimahaiak aukeraturiko irabazleek; eta bestetik, boto gehien lortzen dutenek 300 euro irabaziko dituzte.

Haur, guraso eta irakasleen arteko topaketa maiatzaren 26an izanen dute

TTIPI-TTAPA

Arano, Goizueta, Leitza eta Aresoko eskolen pesta maiatzaren 26an, larunbata, ospatuko dute herrian. Hemertzigarren edizioa izanen da aurten ospatuko dutena eta bateko eta besteko guraso, haur eta irakasleak bilduko dira egun osoko pestan. Guraso Elkarteko kideak dagoneko buru-belarri ari dira prestaketa-lanetan. Baina bazkaria prestatu eta zerbitzatu, jokoak antolatu... zereginak asko dira. Hori horrela, Guraso Elkarteko kideek bo-



Harremanak sendotzea dute helburu.

luntarioak eskatzeko deia egin dute. Lagundu nahi duten boluntarioek Sastinean, Nazabal Eskolan eta Larrea edo Pake Toki elkarteetan eman beharko dute izena.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herritarrek pantaila ttikian

Azken aldian herria ETBko *A bocados* eta Navarra telebisioneko *Supervecinis* saioetan ikusteko aukera izan dugu. Sastinea, Pedroneko borda, Polainenea, Ulizar... bisitatu dituzte. Herritarrek herriko kontuak eta bitxikeriak kontatu dituzte. Nahi duenak interneten ikusteko aukera du.



Goizutrail lasterketan parte hartzeko izena eman daiteke. FELIX LOIARTE

V. Goizutrail lasterketa maiatzaren 19an

Dagoeneko izena eman daiteke eta aurten ere bi ibilbide izanen ditu aukeran, 10'6 eta 25'2 kilometrokoak

TTIPI-TTAPA

Bi ibilbide izanen ditu aukeran Goizutrail mendi lasterketaren bosgarren edizioak maiatzaren 19an, bata 10,6 kilometrokoa eta bestea 25,2 kilometrokoa. Herriko plazan hasiko dira bi ibilbideak 09:00etan, Aitase-megi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik, 680 metrotara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira. Ibilbide laburrekoak, hemendik herrira jautsiko dira Espideko sorotik pasatuz.

Luzea aukeratzen dutenek, ordea, Alkainzuriain auzotik

Mandogira igo beharko dute, 1.045 metrora. Ondoren Mandogiko gailurretik jarraituko du ibilbideak harrespilen artean eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jautsiko dira. Izen ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus webgunean bezpera arte eta egunean berean plazan ere egin daiteke. Aurretik, ibilbide luzerako 20 euro (15 euro herritarrek) eta 15 euro ibilbide laburrerako (10 euro herritarrek); eta egunean berean, 25 euro ibilbide luzerako (20 euro herritarrek) eta 20 euro laburrerako (15 euro) ordaindu behar dira.

Sagardotegira ateraldia eta txakolin dastaketa apirilako azken astebururako

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteak Astigarragako Etxeberria sagardotegira ateraldia apirilaren 20tik 27ra atzeratu du.

Aurreko batean aipatu bezala, txakolindegira ez da ateraldirik egingen eta horren ordez, txakolin-dastaketa an-

tolatu dute apirilaren 28rako. Bost upategi edo txakolindegitako txakolinak ekarriko dituzte. Umore Ona elkarteak 12:30ean izanen da hitzordua eta 10 euro kobratuko dira momentuan, txakolinaren eta bertan eskainiko den luntxaren truke.

«Buruz buru ia ezinezkoa ikusten dut beste txapelaren bat lortzea»

AIMAR OLAIZOLA 20 URTE BETE DITU PROFESIONALETAN

TTIPI-TTAPA

Hogei urte bete dira apirilaren 12an Aimar Olaizolak profesionaletarako jauzia eman zuela. 18 urterekin egin zuen debuta Lekunberrin. Etorkizun handia aurreikusten zioten, baina uste onenak gaingitu ditu, hamalau txapela irabazi baititu Lehen Mailan: lau bakana, hiru binaka eta zazpi lau eta erdian, bigarren mailako buruz burukoaz gain. Berriki bukatu den eskuz binakako txapelketan doi-doi ez zuen finalerako txartela lortu, baina txapelketako pilotaririk onena izendatu dute. Erretiroa urrun ikusten du.

Lau eta erdian, zazpi txapela, eta buruz buru, lau. Binaka, berriz, hiru bakarrik. Penarik?

Uste dut garbi dagoela zergatik diren hiru. Pilotari kasu pixka bat egiten dionak jakin behar luke arrazoia, eta nik pena handia dut, bai. Nire helburua ez da inori meriturik kentzea, baina abantailak emanda jokatu dut kasik ur-



Aimar txapelarekin. ARTXIBOKO ARGAZKIA

tero. Txapelketak egin ditut txapela merezi izan ditudanak, baina hirurekin konformatu beharra daukat, oraingoz.

Beste txapelik irabazteko esperantzarik ba al duzu?

Buruz buru ia ezinezkoa ikusten dut. Lau eta erdian gerra eman dezaket beste urte pare batez, eta binaka ilusioa badut txapeldun izateko. Akaso, denbora laburrera nik beharko dut laguntza atzeko koadroetan, baina hori zenbat eta beranduago iritsi, hobe izanen da. Dena den, ez nuke nahi beranduegi ere izatea.

Patziku Perurena idazleak liburua argitaratu du

Patziku Perurena idazlearen *Leitzalarreko unaiak 1683-1771; Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan 1578-2017* liburua aurkeztu dute astearte honetan Leitzan. Manuel Larramendi Ikerketa saria irabazita burutu du lana Perurenak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



Maitane Maritorea, Joseba Otondo eta Mikel Soto aurkezpenean. JUAN MARI ONDIKOL

(H)ilbeltza bekaren bigarren edizioa aurkeztu dute

AEBko Patricia Highsmith idazlearen 'The Blunderer' liburua euskarara itzultzea izanen da aurtengo bekaren xedea

TTIPI-TTAPA

II. (H)ilbeltza beka aurkeztu zuten martxoaren 27an Balleko Etxean, Joseba Otondo alkateak, Maitane Maritorea (H)ilbeltzako kideak eta Mikel Soto Txalapartako editoreak. Udalak eta (H)ilbeltza elkarteak Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin sortu zuten beka hau, euskal literatura beltza hedatzeko eta munduko literatura beltza euskaratzeko.

Joseba Otondo alkateak Baztan Euskal Herriko kulturamapan kokatu nahi dela eta hori «eragile gisa» egin nahi duela nabarmendu zuen. Go-

gora ekarri zuen aitzineko urtean aurkeztu zutela beka eta Miel Anjel Elustondo azpeitiarrak irabazitako lehen beka hark sorkuntza sustatu nahi zuela. Aurtengoak, berri, itzulpena bultzatu nahi du «bistatik galdu gabe itzulpenak ere baduela sorkuntzatik».

Maitane Maritorea (H)ilbeltzako kideak ere gai horri heldu zion eta zera nabarmendu zuen: «joan den urtean hasi genuen bideari jarraituko diogu aurtien ere. Sormenera ez ezik, itzulpenari ere atea irekitzea da gure nahia». Berak iragarri zuen Patricia High-

smith idazle estatubatuarraren *The Blunderer* liburua itzultzea izanen dela aurtengo bekaren xedea.

Mikel Soto Txalapartako editoreak azaldu zuen Highsmith hautatu izanaren arrazoia eta garrantzia. Idazle honek literatura beltzean izan duen eragina nabarmendu zuen eta itzulpen beka «emakume batekin abiatu nahia» gaineratu zuen.

Bekan parte hartu nahi duten itzultzaileek, beraz, aipatutako eleberriaren lagin bat itzuli beharko dute, zehazki 29. atala. Atal hori eskuragarri egonen da www.ilbeltza.eus eta baztan.eus webgunean.

Lanak udal erregistroan aurkezteko epea 2018ko ekainaren 21a da. Epaimahaiak irailaren 15a baino lehen jakinaraziko du irabazlea. Lagin irabazleari 3.000 euro emanen zaizkio irailean eta itzulpena akitzerakoan bertze 2.000 euro. 2020ko abenduan argitaratuko du Txalaparta argitaletxeak.

Liburuaren Egunaren harira pailazoan emanaldia

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira Potx eta Lotx pailazoan emanaldia eskainiko dute apirilaren 23an, astelehenean 17:00etan Elizondoko liburutegian. Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako ekitaldia, liburutegi publikoaren laguntzarekin.

Euskal Herriko musika eta Korsikako kantuak

Euskal Herriko Kostalde eta Korsikako A Ricuccata taldeek Euskal Herriko musika eta Korsikako kantu polifonikoen emanaldia eskainiko dute apirilaren 29an, igandean 19:00etan Arizkunenean. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

Euskaraldiaren formazio saioa apirilaren 21ean

Euskaraldiaren formazio saioa egingen dute larunbatean 10:00etatik 13:30era Arizkunenean Kultur Etxeko sabaian (hamaiketakorako tartearekin). Ekimenaren oinarri teorikoak, komunikazio estrategiak, herritarren sareratzeko lanak eta prestakuntza landuko dituzte.



Mikel Beunza, iazko mendi lasterketako irabazlea, Saiorako bidean. ARTXIBOKOA

Berroetako Mendi Maratoi Erdia iganderako prest

21,6 kilometro luze eta 1.274 metroko malda duen lasterketa egin beharko dute kirolariek eta oinezko ibilaldia ere izanen da

TTIPI-TTAPA BERROETA

Iazko mendi lasterketari segida emanez, Berroetako Mendi Maratoi Erdia antolatu du Berroetako Herriak. Apirilaren 22an egingen dute eta kirolariek 21,6 kilometro luze eta 1.274 metroko malda duen lasterketa egin beharko dute Berroeta inguratzen duten mendietan barna. Bertzeak bertze, Elorregi, Saioa, Okollin, Larraldeko erreka eta Uzketatik barna pasako dira lasterkariak. Saioa izanen da ibilbideko punturik altuena, 1.418 metrotara dagoena. Ibilbidean borts hornidura-gune izanen

dituzte eta gehienez hiru ordu eta 30 minututan egin beharko dute lasterketa.

18 urtetik goitiko kirolari guztiek parte hartzen ahal dute, federatuak egon edo ez, baina antolatzaileek 300 parte-hartzaile onartuko dituzte gehienez. Apirilaren 17an akitzekoa zen izena emateko epea

Oinezkoendako ibilaldia

Laskerteka ikusteko, mendian barna itzulia ere egingen dute. Oinezko ibilbidea 07:00etan aterako da eta horretarako hamar euro ordaindu beharko dira.

Liburuaren Eguna kontu eta istorio kontari ospatuko dute Anizen igandean

MAITANE MARITORENA ANIZ

Apirilaren 23ko Liburuaren Egunaren kariatarat, Anizko zenbait gurasok liburuaren eguna antolatu dute 22rako. Igande arratsaldean batzar-tegian Indeko Frantxixkak ipuinak kontatuko dizkie haurrei, eta ondotik, Jauregiko

Joxe Juakinek Anizko lehengo kontuak kontatuko ditu.

Ondotik, haurrek etxetik eka-rritako liburuen trukaketa egingen dute, maileguan utziko diote bertze herritar bati, eta trukean bertze norbaitena eramanez dute etxerat. Akabailan merendua izanen dute.

Harreman osasuntsuei eta mugei buruzko solasaldia maiatzaren 5ean

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Baztan Haur Eskolak antolatuta, *Harreman osasuntsuak eta mugak* izeneko solasaldia eskainiko du Ane Ablanedok maiatzaren 5ean, 10:30etik 13:00etara Arizkunenea Kultur Etxean. Apuntatzeko 948 580965 telefonora deitu edo info@eielizondo.com helbide elektronikora idatzi behar da. 5 euro ordaindu beharko da (Guraso Elkartekoek doan).

Ane Ablanedo Larrion (Iruñea, 1973) psikoterapian eta neurosiaren prebentzioan aditua da. Bigarren Hezkun-



Ane Ablanedo hizlaria. ARTXIBOKOA

tzako euskara eta literatura irakaslea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzailea, idazlea eta politikazalea da, bertze zenbait arloren artean.



BAZTANGO LIBURUTEGIA PUBLIKOAN

UTZITAKO ARGAZKIA

Ipuin musikatua Liburuaren Egunean

Liburuaren Egunaren harira, apirilaren 23an, heldu den astelehen arratsaldeko 5:30ean *Ameli eta xirrikituaren jostunen istoria* haurrentako ipuin musikatua eskainiko dute Baztango liburutegi publikoan. Baztango Udalak antolatu du ekimena eta sarrera doan izanen da.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
GASTELU-GASTELU

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Saridunak, udal ordezkariak eta gasna moztu zuen Julen Arburua. A. DEL CASTILLO

Ahari onenak saritu eta urteko gasna moztu dute

Azpilketako Ramon Urrutiak eta Irurritako Miguel Angel Maritorenak lortu dituzte lehen sariak ahari lehiaketan

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Udaberriko Feria egunean, ahari lehiaketaren hogeigarren edizioa burutu zen apirilaren 6an. Azpilketako Etxarteko Ramon Urrutiaren ahariak mutur gorrietan eta Irurritako Gernuxarreko Miguel Angel Maritorenarenak mutur beltzetan irabazi zituz-

ten sari nagusiak. Urteko gasnari lehen kortea eman zion Orabideko Kortarikobordako Julen Arburuak.

Ahari lehiaketaren hogeigarren edizioari dagokionez, 21 buru aurkeztu zituzten, 9 mutur beltz eta 12 mutur gorri, kalitate onekoak. Burugorrien artean, lehenbiziko saria (75

euroko eta Santiago Oteizak egindako kaikua) Azpilketako Etxarteko Ramon Urrutiarenak irabazi zuen, bigarrena (50 euro) eta hirugarrena (30 euro) Arraiozko Xuntoneko Sagrario Urrozenak.

Burubeltzen artean, lehen saria Irurritako Gernuxarreko Migel Angel Maritorenak eraman zuen, bigarrena Erratzuko Txisperriko Maria Soledad Iturbidek eta hirugarrena Jose Mari Gamiok) eta mutur beltzetan, Errazuko Xisperriko Soledad Iturbidek.

Epaimahaia Juan Kruz Iriarte zinegotziak, Beartzungo Pardioleneko Manuel Bertizek eta Irurritako Zaldubiko Joseba Zelaietak osatu zuten.

Aziendez gain, aurtengo lehen feria egunean, eskulangleen erakusketa eta salmenta, txistulariak, haurrentako tailerra eta Baztango dantzari ttikien saioak izan ziren, baita bertako produktuak dastatzeko aukera ere.

Jolasean musikaren bi emanaldi eskainiko dituzte

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Abesbatzak, 2017an, 75. urteurrenaren harira, Josu Elberdin konpositore pasaitarrarekin bi tailer antolatu zituen: bata haurren abesbatzarekin; eta bertzea helduekin. Tailer horien ondoren, lan handi bat taulartzeko ideia sortu zen. Hari horri tiraka prestatutako musikala da *Jolasean*. Apirilaren 21ean, larunbatean, Elizondoko Baztan Pilotalekuan 20:30ean aurkeztea aurreikusi bazuten ere, sarreren salmentak izaniko arrakasta ikusirik, biharamunean, hilaren 22an, ordu eta toki berean, berriz eskaintzea erabaki dute.

Sarrerak Arkupe eta Malkorra gozotegietan daude salgai. Helduek 10 euro eta hamabi urte arteko haurrek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Musikalean haurren abesbatzak, haur bakarlariek eta hiru abeslari helduk parte hartzen dute, narratzailea lagun dutela.

BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas
Hospitalarias
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA

Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:

- Antsietatea
- Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak
- Dementziak

Mendinueta z/g
31700 Elizondo

www.hospitalariasnavarra.org

Centro con plazas concertadas con
Gobierno
de Navarra

**Zerbitzu berria
PSIKIATRIA
ETA PSIKOLOGIAKO
KONTSULTA
ANBULATORIOAK
Tel. 948 452 162**

40. Nafarroaren Eguna ekitaldiz gainezka dator

Apirileko azken igandearen bezperan, apirilaren 28an, Best-of-aldia emanaldi berezia eskainiko dute Baigorriko elizan

TTIPI-TTAPA

Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak antolatuta, Nafarroaren Egunaren 40. edizioa ospatuko dute apirileko azken igandean. Bertze urte batez, besta giroa izanen da nagusi Baigorriko karriketan. Musika, artisauen azoka, bertsolariak, dantzariak, bazkaria, haurrendako ekitaldiak, kale animazioa... ez dira faltako. Berrogeigarrenaldi honetarako ikur berezia Jose Luis Zumetak margotu du.

Egun handia apirileko azken igandea bada ere, aitzinetik ere zenbait ekitaldi egiten ari dira. Apirilaren 15ean, *Zazpi senideko* antzezlanak eskaini zuten Le Petit Théâtre de Pain, Axut! eta Artedrama taldeek.

Apirilaren 21ean, larunbatean, 21:00etan Baigorriko elizan *Mugaz gaindi* jazz'in college kantaldia eskainiko dute 180 kantari gaztek (Garazi eta Baigorritik 120 kantari eta Oreretako Zaria koru eskolako 60 kantari).

Apirilaren 28an, larunbatean 21:00etan Baigorriko elizan, Best-of-aldia emanaldia es-

kainiko dute, kantu maiteak aditzeko aukera eskainiz, lagun zaharren ahotik. Urtero antolatzen den Musikaldia berezia izanen da aurten. Urte haue-tan guztietan egin diren musikaldi onenen bilduma izanen da, eta hortaz, Xare Laborategiko Hertz orkestraren laguntzarekin, urteren batean Musikaldian parte hartu izan duten Euskal Herriko kantari handiak eta baleako kantariak nahastuko dituen ikusgarria prestatu dute. Natxo de Felipe, Niko Etxart, Eñaut Elorrieta eta Eltzegor alde batetik, eta bertzetik, Asteazkenekoak, Kantiruki, Xendarineko ahizpak, Amaia Riousepeyrous, era Aire ahizpak, Baigorriko gaiteroekin batera.

Nafarroaren Eguneko egitaraua

Igandeko egun handiari dagokionez, 08:00etatik 11:00etara askaria izanen da Txakatuk taldearen musikarekin, baita Merkatia, euskal makil borroka erakusketa ere. Gaineko plazan, dantza taldeak (Altsasuko Etorkizuna, Donapaleu-



Baztango dantzariak parte hartuko dute aurten ere. JUAN MARI ONDIKOL

ko Burgaintzi eta Baztango dantza taldea, ziganteak (Baigorri, Elizondo eta Donapaleukoak), txarangak (Kuxkuxtu, Ezpela eta Uztaritzeko txaranga) eta bertze izanen dira (gaiteroak, makilariak, txistulariak, Anhausuko basaldunak, trikitalariak, Karmele eta Koldobide, bertsolariak...). 11:00etatik 13:30era desfilea izanen da. 14:00etatik 17:00etara bazkaria izanen da Ezpela, Uztaritze eta Kuxkuxtu txarangen animazioarekin. 14:00etatik 18:00etara Irrien Lagunak izanen dira Haurren Xokoan.

Herriko Etxe aitzinean, Niarawa batukada (14:00), Bokale brass band (15:00) eta Jaiak txaranga (17:00) ariko dira.



Zumetak margotutako irudia.

Plazan, berriz, Azken Trena taldearen emanaldia (13:30), dantza ikusgarria (17:00), Kiki Bordatxo (18:30), Zezenaren Taldea (20:30), Tximberos karaokea (22:00eta 23:30), Kuartz (22:30), Anita Parker (00:30) eta Tirri&Tery (01:30) izanen dira.

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804 • anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN





Aste Sainduan herriko aparkalekuak gainezka izan dira. KORO IRAZOKI

Azketa aldean bertze aparkaleku bat egin dute

Ortzegun Saindutik igandera bitarte 7.629 lagunek lezeak bisitatu dituzte

JOSEBIÑE ETA KORO

Urtero bezala, aurten ere, herritarrek ikusmiraz jaso dituzte Aste Sainduan herrian izaniko jendeketak. Azken urteetan bisitari kopuruak goiti egin badu ere, aurtengoan joan den urtean baino gutxiagok bisitatu dute herria.

Zehazki, Ortzegun Saindutik igandera bitarte 7.629 lagun sartu ziren lezeetan. Beraz, eguneko ia 2.000 bisita izan zituzten. Egun guztiak, aldiz, ez ziren kopuru aldetik berdinak izan; usaian den bezala, egun jendetsuena ortziralea izan da (2.472 bisitari). Era

berean, eta aitzineko urteetan ez bezala, aurten Aste Saindu ondoko astean, eguraldi ona lagun eta aunitzendako lanik gabeko egunak direnez, ohi baino bisitari gehiago ibili ziren herrian eta lezeetan. Horiek aintzat hartuz gero, guti goiti-beheiti, joan den urteko bisitari kopuru bertsua izan dela kalkulatu dute. Beraz, ezin erran daiteke aldea nabarmena izan denik.

Bertze aparkaleku bat egiteak ez du arazoa konpondu

Urtero bezala, aurten ere herriko sarrera eta karrikak kotxez

gaindizka ikusi ahal izan dira. Areago, aurtengo Aste Sainduan, azken hilabetetako lanari bukaera emanez, bertze aparkaleku bat ere ireki zuten, Azketa aldean, orain arte zegoenaren pare-parean.

Berrogeita hamar auto gehiagok aparkatzeko tokia du aparkalekuak. Edonola ere, toki gehiago izateak ez ditu zirkulaziorako eta aparkatzeko dauden arazoak konpontzeko adina toki. Izan ere, aipaturiko jaiegunetan bi aparkalekuak gainezka egoteaz harago, kotxeak nonahi aparkatuta ikusi zitezkeen.

15.000 euroko inbertsioa azterketa egiteko

Arazoak bere horretan jarraitzen duela ikusirik, Udalak gaia jorrazteko eta horren gaineko azterketa sakonago bat egiteko, 15.000 euroko inbertsioa eginen duela adierazi du. Azterketari ekitean emanen dira horri buruzko xehetasunak.



Carlos Etxegoien. JOANES ETXEGOIEN

Etxeei buruzko hitzaldia izanen dute hilaren 27an, museoan

JOSEBIÑE ETA KORO

Jakina da euskal kulturaren etxeek garrantzi handia dutela. Horren lekuko da, bertzeak bertze, bai inguruko etxeek duten tamaina eta eraikitze-materiala; bai eta etxeen izenak etxejabeen izengoiti izatea ere. Zehazki, horri buruzko hitzaldi bat antolatu dute apirilaren 27rako, Ortziralerako. 20:00etan izanen da hitzordua, herriko museoan. Hitzaldia Juan Carlos Etxegoienek, *Etxea* izeneko liburuaren egileak, eskainiko du. Ikertzaileak berak, Garraldako Xamarrenea baserrian sortua denez gero, bere burua *Xamar* izengoitia erabiliz aurkezten du. Horrela bada, erran daiteke hizlariak berak ere garrantzia hori ageriko egiten duela.

MARTIKO

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Asteleheneetik-ortziralera 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
 T. 948 637 826

BORDALARRA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
 Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
 T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com

Mugako sei herrien arteko besta antolatu dute maiatzean

Kultura, kirola eta gastronomia nahasiko dituzten proben bitartez herritarrak lehian ariko dira

TTIPI-TTAPA

Inguruko herritarrekin harremanak indartzeko asmoz, Sarako Izarra Errugbi taldeak «besta euskaldun eta parekidea» izatea nahi duen eguna antolatu du maiatzaren 5era. Egun horretan, 09:00etatik goiti, Sararekin muga egiten duten herrietakoak hainbat probatan lehian ibiliko dira. Bera, Zugarramurdi, Urdazubi, Ainhoa, Etxalar eta Sarako herritarrek kultura, kirola eta gastronomia nahasiko dituzten hamabi probetan parte hartuko dute: bertsolaritza,

pilota, dantza, korrika, egur pilatzea, sukaldaritza, orga, musa, arpana, kultur Quizz, txirrindularitza, sokatira... Herri bakoitzetik 40-60 bat parte-hartzaile izanen dira. Egun osoan jatekoa, edatekoa eta musika izanen dira.

Gauetz ere besta

Eguna borobiltzeko, afari herrikoia ere egingen dute plazan. Afaria Los Botxerosek alaitua egingen dute. Ondotik, Tiry & Terry DJa ariko da. Afarirako txartelak sei herrietan erosten ahalko dira, 17 eurotan.




GANEX ETA PANTXIKA PATERNEK UTZITAKOAK

Korrontzi Dantzan ikusgarri arrakastatsua

Biziki arrakastatsua izan zen Olhain Ikastolaren 40. urteurrenaren kariatara, apirilaren 7an antolatu zuten Korrontzi Dantzan ikusgarria. 600 bat lagun hurbildu ziren ikustera, bai bildutako jendea bai eta dantzariak ere kontent gelditu ziren emaitzarekin.

Sara Oinez mendi itzulia apirilaren 22an egingen da

Har Hitza Elkartek antolatuta, 28 kilometro eta 1.275 metroko malda positiboa duen mendi itzulia egingen da apirilaren 22an. Mendizaleak 07:00etatik 08:00etara abiatuko dira eta izena 06:30etik 08:00etara eman beharko da kiroldegian, 10 euro ordainduz.



Mendizaleak Saran. TURISMO BULEGOA



UTZITAKO ARGAZKIA

1.200 lagun inguru Idazleen Biltzarrean

Idazleen Biltzarraren 35. ekitaldia uzta ederrekoa izan dela erranez, pozik gelditu dira antolatzaileak. Sariei dagokienez, herriko saria Koldo Zuazo hizkuntzalariarentzat izan da aurten eta biltzarreko sari nagusiak Auxtin Zamora poeta eta Jean-Claude Larronde historialariarentzat.



GANEX

Haroçarene aita-emeak trinketean

Pilota trinketean, Olivier eta Arnaud Haroçarene aita-emeak bikain ibili dira buruz buruko Euskal Herriko liga txapelketan: Olivier helduen bigarren mailan txapeldun izan da finalean Bixente Bideondori 40-29 irabazita. Semea, berriz, txapeldu-norde, Adrien Dufauren kontra, finala 40-30 galduta.



Auxtin Zamora, eskuinetik hasita hirugarrena, Idazleen Biltzarrean. P. BASTRES



Hatsaren Poesia Olerki bildumak. P. BASTRES

Auxtin Zamora omendu dute Sarako Idazleen Biltzarrean

Herriko olerkariaren geldi-gabeko lana goretsi dute hizlariak apirilaren 2an egindako ekitaldian

PIERRE BASTRES

Sarako Idazleen Biltzarraren baitan, Bazko igandeko eguerdian izan zen omenaldiak egiteko tartea. Oihalezko etxepan mundu bat bildua zen orduan, Jean-Claude Larronde eta Auxtin Zamora herri-tarrari egindako eskerrak ikusteko.

Euskal Kultur Erakundeko Pantxoia Etxegoinen ahotan, «oro gaintetik Auxtin da erlea bezain langilea, eta zoin kementsu! Olerkigintzari errotik atxikia da. Iduriz Xabier Diharce "Iratzeder" en olerkiak laburbiltzen du ezinago hobeki

Auxtinen bizi-bidea: «Gizonak maitatzen balaki, Igozoki lezake aurki/zoin den bizia olerki». Hartze du gure miresmena!».

«Eskuara eta nortasuna dira ene erletegiko oinarriak»

Erlea bazenez galdegina, huna zer den Auxtin erdukupena: «Erlea aritzen da loreek beren hautsa emaiten duteno, mamia badeno. Gogoatzeko, amesteko eta idazteko paradak ingurumenak berak emaiten dauzkit. Biltzeko lanetan baizik ez naiz aritzen. Eskuara eta nortasuna

dira ene erletegiko oinarriak». Olerkiaren gutiziaz eta zale-tasunaz, Auxtin jarraitzen da: «Gutti goiti-beheiti 11 urtetan hasi nintzen olerkien idazten, alexandrinez eta erdaraz. Garai hartan eta hemen gairi bederen, olerkiak idazteko usaia handirik ez zen. Gero 30 urte iragan dire nik deusikidatzi gabe! Bizkitartean, Canadako Quebecen egona nintzen, Eskual Herritik urrun. Egoite luze horren ondotik, berriz piztu zaut idazteko grina, 43 urte nituelarik. Erran nezake ene eskualtasunaren mendekua izan dela hau!».

Agurtzane Andueza artista Iruñekoak Auxtin laguna da eta lehen auzoa Sarako Biltzarrean. Euskal kulturaren aldeko Auxtin lan handiaren lekukoetako bat da: «1999urtean Auxtinek sortua zuelarik Hata Elkartea, elgar ezagutu dugu 10 urte geroxeago, 2009ean, hots. Larralderat etortzeko gonbidapena emana zautan hilabete oso bat

pasatzerat: egun guziz nahi nituen obrak sor nitzakeen eta ibiltariak noiz nahi etortzen ahal ziren ikusterat. Hutsetik hasita, azken egunean bakarrik lan osoa ikusten ahal zen. Momentu hau oroigarria daukat Auxtinekin. Geroztik usu ari gara elkarlanean!».

Bururatzeko, aski baikorra agertzen da olerkizale senper-tarra eskuaren geroari buruz: «Eskuara kenka-larrian izanagatik ere, batzuetan sorpresa ederrak ditugu: atzo Marseille hiriko emazte bat etorri zait, gure hiskuntza ikasi duela arras ongi, eta orain ikasazten du Marseilleko eskual etxean! Horik poztan nau ainitz!».

Auxtin Zamorak Sarako Biltzarrean egindako bere hitzaldian adierazpen duen literaturari egin zion ohore. Inork eskertzen ez zuela baieztatu eta, bertaratutakoei erran zien: «Zuen hatsak olerki bilakatzea opa dizuet. Espero dut denak ni bezain zoriontsu izatea poesiari esker».

Hatsaren Poesia Egunak hogeitau urte bete ditu aurten

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 8an, Hatsaren Poesia egunaren hogeigarren edizioa ospatu da Amotze auzoko Larraldean. Euskarazko poesia zaleak bildu duen besta izan da, Hata elkar-teak antolatua. Elkarretaratzearen ondotik, *Hatsaren Poesia 2018*

liburua aurkeztu dute, Eric Traonmilinen sarrerako hitzarekin. Aperitifa eta zizkamizken bazkariaren ondotik, lliburuan parte hartu dutenen testuen irakurketa eta *Hatsaren olerki bustiak 2018* olerki errezitaldia eta bideo-proiektzioa eskaini dituzte.



Hogeigarren edizioko parte-hartzaileetako batzuk. HATA ELKARTEA

«Lehen emakume gidaria izatea ez da ardura berezia»

BANESA SAN JUAN BAKERO AUTO GIDARIA

AITOR AROTZENA LESAKA

Duela 34 urte Beran sortutako emakumea da Banesa San Juan Bakero. Gaur egun Lesakan bizi da, bi alaben ama da eta 2018ko lur gaineko Ford Focus Kopan parte hartuko du lehen aldiz piloto bezala. Hain zuzen, auto-gidari moduan parte hartuko duen lehen emakumea izanen da.

Noiztik motor munduan sartua?

Aspalditik gustuko izan dudana kirola da. Laguntzaile bezala parte hartu dut aunitzetan eta ikustera ere mugitu izan naiz, harat eta honat. Baina kotxe barrenetik zer esperientzia den probatu nuen lehen aldian 2003. urtean izan zen.

Lehen ere kopiloto bezala aritua zara, beraz...

2003an ibili nintzen lehen aldiz, orain nire senarra den Asier Lekuonarekin. Berekin ibili nintzen, bera gidari eta

ni kopiloto lanetan. Citroen Saxo batekin izan zen eta Copa RAC Vasco-Navarro txapelketan parte hartu genuen.

Eta orain piloto ariko zara, proba honetan, lehen emakumea bolantean... Ardura berezia duzu?

Ardura, ardura, ez dakit... Baina dagoeneko urduritzen hasia naiz. Ilusio eta gogo aunitzekin egingen dudana gauza da. Niretzako helburu garrantzitsuena ikastea da, beti ere disfrutatuz!

Zein probatan parte hartuko duzu?

Ford Focus Koparen barrenen dauden probak hauek dira: Torres del Río (maiatzaren 19an), Obanos (ekainaren 23an), Anue (uztailaren 28an), Autol (abuztuaren 25ean), Nafarroako Zirkuitoa (irailaren 22an) eta Borja (urriaren 21ean). Kopatik aparte bertze proba batzuetan ere parte hartuko dut, esku pixka bat



Banesa San Juan, Ford Focus Kopan gidatuko duen autoarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

«NIRE LEHEN HELBURUA IKASTEA ETA DISFRUTATZEA DA»

hartzeko: Ausejon, Autonan, Alfaron eta Aldeanuevan.

Zein helburu jartzen dizkiozu zure buruari?

Nire helburua, lehenik eta behin, ikastea da. Maite dudana

kirol honetaz, ahalik eta gehien disfrutatzea, eta bertako giroaz gozatzea.

Bertzerik?

Eskerrak eman laguntzeko beti prest dauden lagunei, aukera hau eman didatenei, Miguel Iraizoz kopilotoari eta, nola ez, beti animatzen hor dagoen nire familiari. Eta ahaztu gabe, eskerrak eman ere nire babesleei, laguntzarik ttikiena bada ere, kirol honetan laguntza handia delako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako kenpo kai txapelketan ederki

Guadalajaran jokaturako Espainiako kenpo kai txapelketan, junior mailako semi kenpo borrokan, urrezko dominak lortu zituzten Joane Etxegarai beratarrak (66 kiloz goiti) eta Aroa Canabal igantziarrak (66 kiloz beheiti) eta zilarrezko domina lortu zuen Zigako Daniel Sanzek (75 kiloz goiti).



UTZITAKO ARGAZKIA

Erreka Tri Nafarroako duatloi txapeldun

Urteroko hitzordua izan zuten apirilaren 7an Sarrigurenen Nafarroako taldekako duatloi txapelketan. Doneztebeko Erreka Tri bi talde atera zituen. Santi San Miguel, Peio Lopez Arbizu, Alberto Barberena, Iñigo Arregi, Javier Magaña eta Iñigo Lasagak osatutakoak txapelketa irabazi zuten.



Doneztebek bortz talde plazaratu ditu eta Bear-Zana historikoan jokatu dituzte etxeko partidak. UTZITAKO ARGAZKIA

Bederatzi talde hasiak dira XXXIX. Laxoa txapelketan

Doneztebeko bortz, Irurritako bi eta Arraioz eta Oizko bana ari dira eta abuztuaren 4an jokatu dute finala Oizko plazan

TTIPI-TTAPA

Martxo eta apirila lotzen dituen Aste Sainduko asteburuan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren hogeita hemeretzigarren edizioa. Bederatzi talde ari dira aurten goan, bortz Doneztebekoak,

bi Irurritakoak (tartean gaur egungo txapeladuna) eta Arraioz eta Oizko bana. Azken hiru urteetan bezala, izenaren ondotik, babesle duten etxearen izena eramanen dute taldeek. Finala abuztuaren 4an jokatu dute Oizko plazan.

Bortz eta lau taldeko bi multzotan banatuta ari dira taldeak. A multzoan, gaur egungo txapeladun diren **Irurita-Miguelene** (Xabi Barberena, Gorka Urtaun, Jagoba Ramos eta Egoitz Prim), **Arraioz-Sagardia** (Mikel Mindegia, Xabier

Mihura, Aritz Alunda eta Jon Gamio), **Doneztebe-Zarbo.net** (Felipe Ganboa, Luis Miguel Apezetxea, Jesus Mari Zabala eta Jose Mari Anzizar beteranoak), **Oiz-Kokoetxea** (Ioritz Zelaieta, Aimar Saldias, Jon Oiartzabal eta Iñaki Mendiola) eta **Doneztebe-Mikelo** (Josu Juanena, Xabier Ibarrola, Unai Sapuppo eta Julen Etxebeste) ariko dira.

B multzoan, berriz, **Irurita-Olari** (Jorge Azkarate, Joseba Urtaun, Guillermo Etxenike eta Iñaki Etxandi), **Doneztebe-Avia** (Javier Almandoz, Asier Mutuberria, Jokin Apezetxea eta Juan Telletxea), **Doneztebe-The Moment**, (Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa) eta **Doneztebe-Apezteguia** (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Joseba Juanena eta Ibai Santesteban) ariko dira.

Finala abuztuaren 4an Oizen

Multzo bakoitzeko lau lehenbuzikoek final laurdenak jokatu dituzte ekainaren 23 eta 30ean eta uztailearen 7an; irabazleek finalurrekoak jokatu dituzte uztailearen 14, 21 eta 28an eta finala Oizko plazan jokatu da abuztuaren 4an.

Nafarroako lauko sokatirako txapelak Lesakan eta Iruritan emanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako goma gaineko lauko sokatira txapelketa jokoan da. Lehen jardunaldia apirilaren 14an jokatu dute Txantrean. Gizonezkoen 320 kiloko lehen jardunaldia jokatu dute Lesakako Beti Gazte, Berriozar A eta B, Txantrea, Antsoain eta Kaskallueta taldeek; emakumezkoen 255 kiloko lehen jardunaldia Beti Gazte A eta B, Berriozar eta Antsoain taldeek; 20 urtez azpiko lehen jardunaldia (280 kilo), Basaburua A eta B, Araxes A eta B eta Berriozar taldeek

eta kadeteen lehen jardunaldia (280 kilo) Basaburua, Berriozar, Anar, Andra Mari eta Iñigo Aritza taldeek.

Bigarren saioa apirilaren 21ean jokatu dute, larunbatean, 17:00etan Lesakako udal pilotalekuan. Gizonezkoen 320 kiloko eta emakumeen 255 kiloko bigarren jardunaldia jokatu dute eta ondotik, bi jardunaldietan puntu gehien lortu dituzten bi taldeen arteko finala. 20 urtez beheitikoek eta kadeteek ere bigarren jardunaldia jokatu dute.



Beti Gazteko mutilen taldea da gaur egungo txapeladuna. UTZITAKO ARGAZKIA

Maiatzaren 5ean Antsoainen, gizonen 300 kiloko eta emakumeen 235 kiloko lehen jardunaldia jokatu dute. Maiatzaren 12an, Irurritako pilota-

lekuan lau txapel emanen dira: 300 kiloko eta 235 kilokoak eta 20 urtez beheitiko eta kadete mailakoak, laugarren jardunaldiaren ondotik.

AGENDA

APIRILAK 19 - MAIATZAK 3

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: T. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

BERA

Toki Onako historia eta istorioak

Irakasle eta langileen eskutik. Beralandetan, apirilaren 20an, 18:00etan.

Bidasoko arrain migratzaileen I. jardunaldia

Beralandetan, apirilaren 21ean, 09:30etik 18:00etara.

Bortxazko lanak eta fortifikazioa frankismoan

Beralandetan, apirilaren 26an, 19:00etan.

ELIZONDO

Euskaraldia formazio-saioak

Arizkuneko sabaian, apirilaren 21ean, 10:00etatik 13:00etara.

Elizondo fiskalaren kontra eta ezpata-dantzen desagertzea

Arizkuneko sabaian, maiatzaren 4an, 19:30ean.

LESAKA

Haurren garapenaren XII. jardunaldiak

Udalaren Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 21ean, 09:00etatik 13:30era.

LEITZA

Gizarte ekonomiari buruzko tutoriala

Leitzako udaletxean, apirilaren 19an, 19:00etatik 21:00etara.

Bertatik bertara saioa

Leitzako udaletxean, maiatzaren 3an, 16:30etik 19:30etara.

ANTZERKIAK

BERA

Gatas

Kultur Etxean, apirilaren 28an,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

BERROETA Mendi Maratoi Erdia

21,6 km eta 1.274 metroko maldada: Elorregin, Saioan, Ollokin... barna. Apirilaren 22an, larunbata, plazatik abiatuta, 09:00etan.

19:00etan. Sarrera: 4€.

DANTZAK

LESAKA

Tantirudantza

Goizean kalejira herrian barna; arratsaldean, berriz, jaialdia plazan. Apirilaren 22an.

AZOKAK

SARA

Bertako ekoizleen merkatua

Apiriletik irailera bitarte, ortziraletan, 16:30etik 20:30era.

ELIZONDO

Bertako produktuen merkatua

Apirilaren 28an, 11:00etatik 14:00etara, plazan.

HAURREN TXOKOA

BERA

Txanpon baten truke

Haurrendako ipuin kontaketa,

Ameli ipuin-kontalariarekin. Berako Herri Liburutegian, apirilaren 20an, 18:00etan.

Baserriko kirol parke tematikoa (Kulki)

Altzateko pilotalekuan, apirilaren 21ean, 16:00etan.

ELIZONDO

Ameli eta Xirrikituen jostunen istorioa

Ipuin kontaketa musikatua. Baztango Liburutegi Publikoan, apirilaren 23an, 17:30ean.

LESAKA

Kutzaka: ipuinak eta marrazkiak

Harriondoan, apirilaren 24an, 17:30ean.

DONEZTEBE

Oliber magoa

Zinema aretoan, apirilaren 22an, 18:00etan.

Do re mi ikuskizuna

San Migel ikastetxean, apirilaren 23an.

Pentsatzeko ipuinak

Fernando Anbustegiren eskutik. Mendaur institutuan, apirilaren 23an eta 24an; eta apirilaren 27an, ortziraletan, liburutegian.

MENDI IRTEERAK

LEITZA

XL. Herri Krossa

Leitzako plazatik hasita, apirilaren 21ean, 17:30ean. Aurretik gaztetxoak.

BERROETA

Mendi Maratoi Erdia

Berroetako plazatik, apirilaren 22an (22€).

Oinezkoendako ibilaldia

Berroetako plazatik, apirilaren 21ean, 07:00etan (10€).

BERA

Batailoiek utzitako arrastoak ezagutzeko txangoa

Plazatik hasita, apirilaren 29an, 09:00etatik 13:00etara.

SARA

Sara oinez

Plazatik abiatuta, apirilaren 22an, 06:30ean.

OSPAKIZUNAK

LARRAINTZAR

Rugby gaupasa

Baztango Rugby Taldeak antolatua. Apirilaren 21ean, herriko pilotalekuan.

BERA

III. Azienda Feria

Apirilaren 28an, kiroldegi aitzinean.

SARA

Herri Aitada Eguna

Maiatzaren 5ean, Sarako plazan, 09:00etatik goiti.



UTZITAKO ARGAZKIA

BERA III. Azienda FERIA

Azienda erakusketa, ekoizleen produktuen salmenta, idi proba...
Apirilaren 28an, larunbatean.

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 29an.

KONTZERTUAK

SARA

Erlauntza Abesbatzaren emanaldia

Apirilaren 19an, 21:00etan.

LESAKA

Julian Gayarre abesbatza

Apirilaren 21ean, 19:30eko mezaren ondotik, San Martin elizan.

Txamukos mariatxiak

Apirilaren 21ean, 17:30ean, Andra Mari Egoitzan.

ELIZONDO

Jolasean musikala

Pilotalekuan, apirilaren 21ean, 20:30ean (10€, haurrek 5€).

Kostalde & Ricuccata

Arizkunenean, apirilaren 29an, 19:00etan.

LEKAROZ

Kasleen kontzertua

Lekaroz BHIko kiroldegian, apirilaren 26an, 17:00etan.

IRURITA

Haur eta gazte kantarien VII. topaketa

Iruritako elizan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

IKASTAROAK

DONEZTEBE

Photoshop ikastaroa

Herriko Ostatuan apirilaren 20an, 27an eta maiatzaren 4an eta 11n. 19:00etatik 21:00etara.

ERAKUSKETAK

BERA

Langile batailoiak Beran

Berako Kultur Etxean, apirilaren 26tik maiatzaren 12ra arte. Ortzegunetik larunbatara 17:00etatik 19:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era.

Nire aukera

«Naizen bezala zoriontsua naiz, ez dut gehiago eskatzen»

NEREA MORTALENA ARRAIOZKO GAZTEA

«27 urteko arraiotzar alai, jator eta solasturia» dela erranez aurkeztu digu bere burua Mortalenak. Bere lana tarteko, «kotxearekin aunitz mugitzen» denez, asti libreduenean, herrian eta etxean egotea atsegin du: «mendi bueltak egin, lagunekin frontenis partidak jokatu, etxean gauzak egin...». Aitortu digunez, «familiarra» da:

«gustuko dut etxearekin egotea»; baita lagunekin ere:

«lagunen laguna naiz eta beraiekin planak egiten ditut».

Animaliak eta natura dira bere bertze afizioak, eta «arras gustuko» dituenez,

«noizean behin etxekoei animalien lanekin esku bat

botatzen diet». Halaxe bizi da kontent:

«naizen bezala zoriontsua naiz. Nire ingurukoak ongi egotearekin aski dut». Ez ditu saltzeko herria eta ingurua eta ez da urrutira joan bisitatu duen tokirik politenez

galdetuta: «niretako tokirik politena Baztan da». Are gehiago, «27 urteko gazte batengan arraroa izan daitekeela» dioten arren, «bidaiatzea ez zait batere gustatzen». Herrian berean du maite duena: «Urrizketa eta Larrazuko txokoak» bezala, edota herriko giroa bera: «ostatu giroko herria da Arraiotz eta hori gauza polita da. Adin guzietakoak ostatuan elkartzen gara eta horri esker, adinekoekin solastatu eta herriko jendearikin harremana dugu». Hori bai, umoretsu aitortu digu zerbaiten falta sumatua duela: «beti erran izan dut udan Arraiotzen igerileku bat izan beharko genukeela».

Bestazalea ere bada, eta nahiz eta lehen gehiago ateratzen zela onartu, baditu huts egiten ez dituen hitzorduak: inauteriak, bestak, Baztandarren Biltzarra, feriak, Eguberriak... Azken aldirian bertze ardura bat ere hartua du: Ttipi-Ttapako Arraiotzko berriemaile lanetan ari da. Kontatu digunez, «arras gustura» ari da, eta lan horrek «arduratsua goa izatea» erakutsi omen dio, eta gainera, «herritarrekin zuzenki egoteko aukera gehiago ematen dit. Politza da eskualdeko euskal aldizkarian leku ttiki bat izatea». Berria edozein dela ere, «denak kontatzea gustatzen zait, denak bereziak direlako».



UTZITAKO ARGAZKIA

«ESKERRAK EMAN NAHIKO NIZKIEKE BERRIEMAILE GISA LAGUNDU DIDATEN ARRAIOZTARREI»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎ 646 774 117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑA. Ospitaleen ondoan, pisua errentan emateko. Bi unibertsitateen artean, hirigunetik hurbil. 4 logela. ☎ 626 899349 / 669 993941.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO edo INGURUAN. Lanean dagoen Elizondoko bikote batek pisua errentan hartuko luke. ☎ 626 834109 / 660 847154.

ELIZONDO. Etxebizitza errentan hartuko nuke. ☎ 664 149530.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Esperientzia duen kamioi mekanikaria behar dute astelehenerdik ortziralera aritzeko. ☎ 679 892032.

BERA. Katakua ostatuan zerbitzari euskalduna behar da, asteburuetan, txandaka, lan egiteko. ☎ 617 489765/ 948 630858.

BERA. Asteburuetan lan egiteko langile bat behar dugu biltegitzaireta eta kutxazain bezala aritzeko. Interesatuak bidali curriculumak *beolae txea@gmail.com* helbidera edo deitu 948 630 709 telefonora.

ESKARIAK

Adinekoak edo umeak **zaintzen, ostalaritzan** eta **garbitasunean** esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 635 296717.

Mantentze-lanetan esperientzia duen **mutila lan bila.** Bertze lan arloetan ere lan egiteko prest. ☎ 604 239344.

Adineko pertsonak **zaintzen** eta **ostalaritzan** esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 666 337495.

12 urtez adinduak zaintzen ibili den emakumea lan bila. Orduka edo interna moduan. ☎ 682 808812.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko lan bila. ☎632 213964.

Esperientziadun emakumea adinekoak edo haurrak **zaindu** edo **garbitan** aritzeko prest. ☎688 418121.

Esperientziadun neska **lan egiteko** prest. ☎664 149530.

Garbitasunean, adinduak zaintzen... aritzeko lan bila. ☎644 204353.

Adinekoak zaintzen esperientziadun emakumea lan bila, interna moduan.. ☎602 895536.

KLASE PARTIKULARRAK

LESAKA. Klase partikularrak ematen ditut: matematika, fisika, kimika, ingelesa, hizkuntzak... unibertsitateko maila arte. Talde murrituak. Esperientzia zabala klase partikularrak emateko. ☎ 605 762880 (Aitor).

ZERBITZUAK

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272 011 (IRUÑA)

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 3,83

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun inguruak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizona 1,156 €

Zerramak 0,620€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 30etik apirilaren 6ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

SALGAI



Seat Toledo autoa salgai. Egoera onean. Motorra berritua, korrea eta uraren bomba aldatu berriak. 2.000 euro. ☎ 646 517549 / 659 537248.



Quad Honda 400 TRX motoa salgai. Oso egoera onean eta libilgailuen Azterketa Teknikoa pasatu berria. ☎687 736970.

TAILERRAK



ANIMALIAK

SALGAI

Sei urteko **zezena** salgai, piriniar arrazakoa. Mantsoa, oso ongi zaindua eta janari osasungarri hazia. Etxera etorri gero, ikusteko aukera. ☎ 695 716894.



Zaldia salgai, mendian ibilia. ☎ 616 109050.

Urte eta erdiko piriniotar arrazako **zezena** salgai. ☎ 630 184847.

OPARITZEKO

Bi urteko **setter ingeles** txakurra oparitzeko. Hiru koloretakoa, oso polita eta lasaia. Txipa eta txerto guztiekin. ☎ 628 055178.

DENETARIK**SALEROSKETAK**

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki hauek guztiak Interneten: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>



Logela mexikarra osorik edo altzariak banaka salgai. Apalak: 190x90x35; mesanotxea: 59x40x40; ohatzea: 105x200 (denak kajoiekin). Koltxoi eta almohada biskolastikoak (Garantia barne). ☎ 661 767398.

SANTESTEBAN TAILERRAK

6.900€

KANGOO PROFESIONAL dci 75 CV
2011 urtekoa | 134.000 km

8.300€

DOKKER AMBIANCE dci 90 CV
2015 urtekoa | 19.100 km

10.800€

MEGANE III BUSSINESS 1.5 dci 95 CV
2015 urtekoa | 54.000 km

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

Specialized 800€

BH 1.800€

Orbea 1.200€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

KONTATU KONTUAK

Kubara egindako bidaia pedagogikoa. Hik Hasi pedagogia elkarteak antolatuta, Kubako hezkuntza sistema ezagutzeko aukera izan dute Miren Inda donamariarrak, Saioa De La Flor leitzarrak, Ixiar Bazterrika iturendarrak eta Amaia Inda donamariarrak. Argazkian Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* ere ageri da beraiekin. Aste Santuko oporretan egin zuten Kubarako bidaia eta hamar egunez, hango hainbat eskoletan ibili ziren.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidalgizu **posta elektronikoz** (info@ttipi.eus) edo **Whatsapez** (744 484361).

**Langile bat kontratatze deialdia**

Bortzirietako hiri-hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitateak langile bat kontratatu nahi du:

Baldintzak:

- Lanpostua: hondakin teknikariaren laguntzailea.
- Sei hilabeteko kontratua, luzagarria, jardunaldi osoan.
- Doneztebeko Enplegu Zerbitzuan apuntatuta egotea eta Bortzirietako izatea. Interesatuek apirilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dute.

Informazioa:

- Tel.: 948 635 254 / e-posta: bulegoa@bortziriazabor.com

**Udalekuetako begiraleen lan-poltsa deialdia****Bete beharrekoak:**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Euskaraz jakitea (C1 mailako titulazioa edo maila horretako proba gainditua)

Eskaerak:

- Eskaerak maiatzaren 16ko 13:00 baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.

Informazioa:

- Deialdia www.bortziriazabor.com webgunean dago ikusgai.
- Informazio gehiago nahi izanez gero deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.

Arantzan, 2018ko apirilaren 13an
Mankomunitateko lehendakaria, Mentxu Peña Lizarazu

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Herriko Plaza, 7-2. 31790 Arantza
Tel. 948 634 125 / e-posta: euskara@bortziriazabor.com
www.bortziriazabor.com

Anixe Elkarte Mikrokooperatibaren desegitea eta likidazioa

Nafarroako Kooperatiben abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 60. artikularen arabera, ondorengo jakinarazi nahi da: 2018ko martxoaren 12an, Anixe Elkarte Mikrokooperatibako bazkideen Ezohiko Batzar Orokorra egin zela, bazkide guztiak aho batez hala erabaki ondotik. Guztiaren parte-hartzearekin eta adostasunarekin, elkartearen desegitea, likidatzaile bakarraren izendapena eta likidazioa adostu ziren, likidatzaileak aurkeztutako azken balantzea eta sozietatearen ondasunen banaketa-proiektua onartuz, aldi berean. Aipatu akordioaren inguruko dokumentazioa egoitza sozialean dago, interesdunen eskura.

Lesakan, 2018ko martxoaren 12an
Likidatzaile bakarra, Itsaso Alcalde Echeppure

OROIGARRIA

Enrike ERREGERENA BERA

Ituren, 2018ko martxoaren 26an

Ezagun egin ginduan hintzela gazte-gaztea, mugaz gaindi hara-hona borrokarako artea, langileen alde beti deuseztatzeko katea, ametsa beti gogoan Euskal Herria ikustea,

lparra eta hegoa batua eta askea, bizitzen jakin izan duk horixe gure ustea, mahai-inguruan hizketan dastatuz lagunartea, milesker bihotz-bihotzez Enrike lagun maitea.



Laminaciones de Lesakako LABeko Kideak

OROIGARRIA

Enrike ERREGERENA BERA

Ituren, 2018ko martxoaren 26an

Euskaldun gisa, helburu zenuen garaipena, ta familian bihotzez eman diguzu dena. Helduon irriak eta umeen zoramena...

jatorra, burugogorra, zorrotza ta zuzena. Mendaurtik abiatuta mendietan barrena, Iratirantz zabal bedi zure oroitzapena.



ZURE FAMILIA

Eskerrik asko momentu gogor hauetan gure ondoan egon zareten guztiei.

URTEURRENA



Bernardo Rekalde Barrenetxe
1926-12-14 - 2017-04-15
I. URTEBURUA

*Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.
Zure familia*

OROIGARRIA

Enrike ERREGERENA BERA

Ituren, 2018ko martxoaren 26an

Basaoilarrak ez du kantatzen Iratiko basoan, Mendaurreko oiha txoriak isiltasun osoan, hurbileko ginenak, berriz, begi malkoz lausoan.



MALERREKA, HENDAIA ETA ZALDIBIKO LAGUNAK

Zurekin bizitako uneak eta bazkalosteak bihotzean albatuta ditugu. Milesker Kike.

URTEURRENA



JOSE MARI BALEZTENA

IX. Urteurrena

Beti gure bihotzean egongo zara

*Maite zaitugu
Isabel, Olaia eta Egoitz*

OROIGARRIA

Maria Josefa ALZUGARAY LAZCANO

Arantzan, 2018ko apirilaren 4an

Arantzan etorri zinen mundura gogoz beteta gero neskato lanera ze nolako aldaketa, *Terminus* ta *Gitanillan* lana eginez gainezka, sukaldari hagitz ona ene! zenbat errezeta.

Familia babesteko pazientzia ta beta, beti izan dugu zure maitasuna ta arreta, zure irria gurekin dugu barruan gordeta, gurekin zaude betiko mila esker Tia Pepa.



ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guztiei, mila esker.

URTEURRENA

Mateo MENDIBURU GORTARI

Elizondon, 2017ko apirilaren 24an
I. urteurrena

Gau ilun eta triste batean joan zinen, geroztik ez da egunik, ez momenturik ere, zutaz oroitzen ez garenik. Egun batean, elkartuko garelakoan, ez agurrik, gero arte baizik.

Emaztea eta semea

Bere aldeko meza apirilaren 29an egingen da, 10:00etan Elizondoko elizan.



tanatorioak
IRACHE
24 ORDUKO TELEFONOA
948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

HERIOTZAK

- **M^a Carmen Agerre Agerre**, Gartzaingoa, martxoaren 27an.
- **Esteban Altzuguren Mikelperizena**, Berakoa, martxoaren 28an, 91 urte zituela.
- **Ana Etxart Insausti**, Doneztebekoa, martxoaren 30ean, 92 urte zituela.
- **Antoni Almandoz Larrain**, Arantzakoa, martxoaren 30ean, 88 urte zituela.
- **Manuel Agesta Zozaia**, Sunbillakoa, martxoaren 30ean, 76 urte zituela.
- **Jose Mari Indakotxea Indakotxea**, Zubietakoa, apirilaren 1ean, 82 urte zituela.
- **Esteban Irigoien Iriarte**, Berroetakoa, apirilaren 1ean, 94 urte zituela.
- **Eustakio Mitxelorena Lasaga**, Donamariakoa, apirilaren 1ean, 78 urte zituela.
- **Francisco Javier Mindegia Muñoz**, Donamariakoa, apirilaren 3an, 63 urte zituela.
- **Manuel Petrirena Elizalde**, Lesakakoa, apirilaren 3an, 70 urte zituela.
- **Maria Josefa Altugarai Lazkano**, Arantzakoa, apirilaren 4an, 87 urte zituela.
- **Estefania Matxiarena Aranibar**, Berakoa, apirilaren 6an hil zen, 85 urte zituela.
- **Mikaela Maritorea Etxebere**, Elizondokoa, apirilaren 8an, 96 urte zituela.
- **Marie Elorga**, Sarakoa, martxoaren 18an, 91 urte zituela.
- **Françoise Goyenetche**, Sarakoa, apirilaren 3an, 92 urte zituela.
- **Jabier Karrikaburu Lazkoz**, Elbetekoa, apirilaren 9an, 90 urte zituela.
- **M^a Rosario Orradre Garmendia**, Elizondokoa, apirilaren 10ean, 94 urte zituela.
- **Javier Ignacio Goñi Uharte**, Elizondokoa, apirilaren 10ean, 70 urte zituela.
- **Jose Esteban Etxeberria Tapia**, Lesakakoa, apirilaren 11n, 73 urte zituela.



BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

HEMEN, ZURE ONDAN
AQUÍ, A TU LADO

SORTZEAK

- **Izaro Belarra Zubieta**, Doneztebekoa, martxoaren 15ean.
- **Nerea Loiarde Labiano**, Doneztebekoa, apirilaren 4an.
- **Unax Maia Larralde**, Lesakakoa, martxoaren 31n.

EZKONTZAK

- **Iban De Prado Etxepeteleku** eta **Monica Ruiz Espinar**, Errenteriakoa eta Granollersekkoa, martxoaren 29an Lesakan.

URTEBETETZEAK




Maialen eta **Irati Orube Uria**: martxoaren 7an 6 urte bete zituen bikote bihurri honek. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Jone ahizpa nagusiaren partetik. Pastel hagitz ona jan genuen zuen kontura!!!



Goiuri Zabaleta Rodrigezek 9 urte bete ditu apirilaren 15ean. Prestatu berendu goxoa etxekoentzat. Muxu potolo bat Oier, atta eta amaren partetik.



Sunbillako **Maiderek** urteak bete ditu apirilaren 10ean. Aunitz urte etxeko partetik, berexiki, besoetan duzun Ander ilobaren partetik.



Apirilaren 24an urteak beteko ditu Ezkurrako amatxi **Xexilik!** Zorionak eta muxuak etxeko eta batez ere Iraideren partetik. Postre goxoa prestatu!!



Elko, Nevadako (AEB) **Kyle Owsley Igoak** 16 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Musu haundi bat.



Silvia Etxarte lesakarrak apirilaren 20an 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



Pablo Olaizola Espelosin urdazubiarrak apirilaren 18an urteak bete ditu. Zorionak aitaxi eta muxu pila zure Pablo junior eta etxeko partetik.




Enaitz Balda gure etxeko baseritar tikiak 5 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak etxeko partetik! Muxu haundi-haundi bat.



Aritz Bertiz Juaneneak 3 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak familia osoan eta bereziki Aroaren partetik. Muxu bat, txikito!



Aiora Legarra doneztebarrak 2 urte bete ditu apirilaren 15ean. Aunitz urte etxeko sorgin bihurriari familiaren partetik! Asko maite zaitugu!



Arantzako **Mikel Barrenetxe Alzurik** urtea beteko du heldu den apirilaren 28an. Zorionak polit hori Arantzako eta Erratzuko familien partetik. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!

PLAZAN BAZAN



LOREZ LORE

Egilea: Garbaine Ubeda (Aiuurri)



Lagundu erleari erlauntzara iristen. Bidean aurkituko dituzun loreetako hizkiek esaera zahar bat osatzen dute. Idatz itzazu ordenean beheko biribiletan eta jakingo duzu esaera zein den.

INTERNETEN ERE BAI ! <http://plazanbazan.eu/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak



ZAZPIKOR

Bi irudi hauen artean dauden aldeak bila itzazu. Zazpi dira guztira.




ITZALA

Lupak erakusten duen zomorrotxo kakati hori zer ote da? Mega birus bat? Zorri mutante bat? Molekula erradioaktibo bat? Edozer dela ere, itzal zuzen bakarra dauka, zein da?



ZULOA

Zein animalia bizi ote da zulo honetan? Marraz ezazu, eta bere bi kumeak ere bai.



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

707

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Agurtzane Zelaieta Elizondo | BERA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Martintxo Mariezkurrena Juanena | URROZ
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
M^a Carmen Etxebertz Dorremotzea | ERRATZU
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Josean Subizar Garralda | IRUÑEA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Jaime Iantzi Irigoien | ANIZ
La Rhune - 2 sarrera
Mila Berasategi Zabaleta | LEITZA
Burdinbidearen Euskal Museoa
eta lurrun trenean bidaia - Bi sarrera
Miguel Irigoien Jorajuria | DONEZTEBE
Jose M^a Maskotena Jaurena | URDAZUBI

2 tiket

BAZTAN
ABENTURA PARK

ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

LI BU RU AK



Ispilutxo
Pello Añorga + Jokin Mitxelena

elkar
www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK

